

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2023ko abendua / 344. zenbakia

www.oñati.eus  



ganbara
FAKTORIA

Bi kontzertu erraldoi urtea agurtzeko

- Sorginei buruzko **'Gaueko Andreak'** kontzertua eskainiko du Hots Abesbatzak
- Rossiniren **'Petite Messe Solennelle'** abestuko du Ganbara Abesbatzak

'Zuk jakitea nahi dut...'

→ Norbere bizitzaren zaintza modu partekatuan planifikatzeko gida aurkeztu du Foru Aldundiak. → Nolako zaintza jaso nahiko genukeen adierazteko dokumentua da.

Dokumentu-gida berri honen inguruko informazio-hitzaldia egongo da **abendua**ren 11an (Santa Ana aretoa, 18:00). Etika Batzordeko kide Olaia Aranak emango ditu azalpenak.



Gipuzkoako Esku-Hartze Sozialerako Etika Batzordeko kidea da Olaia Arana. Berak emango du 'Zuk jakitea nahi dut...' dokumentu-gidari buruzko informazio-hitzaldia.

"Azken helburua da zaintzari buruz normaltasunez berba egitea eta gai honen inguruko hausnarketa egitea ingurukoekin. Ez dadila izan gai tabu bat"

"Lortu nahi da pertsonak erdigunean jartzea, zaintzari dagokionez. Gu geu izatea gure bizitzako protagonistak"

Pertsona bakoitzaren balioak, nahiak eta beharrak entzun eta errespetatuz, zaintzak modu partekatuan eta elkarriketatuan planifikatzeko dokumentu-gida aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, Esku-Hartze Sozialerako Etika Batzordearekin elkarlanean. **'Zuk jakitea nahi dut...'** du izena dokumentu berri honek, eta horren inguruko azalpenak ematera etorriko da Olaia Arana abendua 11n (Santa Ana aretoa, 18:00). Zertarako balio duen, nori zuzenduta dagoen, nola eta non bete daitekeen... eta beste hainbat gauza argituko ditu bertan. Aurrerapena egitea eskatu diogu.

Zer da 'Zuk jakitea nahi dut...' dokumentua?

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Esku-Hartze Sozialerako Etika Batzordeak prestatu duten dokumentu-gida bat da, bizitza- eta zaintza-plan partekatua eta elkarriketatua egiten laguntzeko. Hau da, gida horrek jarraibide erraz batzuk eskaintzen ditu, pertsona bakoitzak bere balioak eta bere nahiak adierazteko, nolako zaintza jasotzea gustatuko litzaikeen azaltzeko. Alegia, zaintza jasotzeko momentua iristen baldin bazaio eta, arrazoi bategatik edo bestegatik, ez bada gauza bere nahia adierazteko, dokumentu honi esker pertsona horren ingurukoek (familiakoak, profesionalak...) jakingo dute zein den pertsona horren gogoia eta borondatea.

Zer lortu nahi da dokumentu honekin?

Lortu nahi da pertsonak erdigunean jartzea, zaintzari dagokionez. Gu geu izatea gure bizitzako protagonistak, gure bizitzaren jabe. Azken batean, denok nahi dugu bizitza on bat, bizitza duin bat, bai osasuntsu gaudenean, eta baita mendekotasun, gaixotasun edo zaurgarritasun egoeran gaudenean ere.

Azken finean lortu nahi dena da zaintzari buruz berba egitea normaltasun batekin. Ez dadila izan gai tabu bat, lotsagatik edo aldamenekoak molestatu nahi ez izateagatik.

Zer adierazten edo jasotzen da dokumentu horretan?

Ezer baino lehen, inportantea da esatea hau ez dela Olentzerori idazten zaion gutun bat. Alegia, gure desioak adierazteko balio du, bai, baina errealistak izanik; hau da, kontuan hartu beharko dugu gure etxea prestatuta ote dagoen bertan zaintzak jasotzeko, gizarteak zer eskaintzen digun, eta gure senideak

zertarako prest dauden ere bai.

Hori garbi utzita, dokumentuan gure nahia adieraziko dugu eguneroko bizitzako gauza askoren inguruan: zer gustatzen zaidan jateko, zer janzteko, noiz gustatzen zaidan dutxatzea, norekin egotea gustatzen zaidan, nire dirua zertan gastatu nahi dudan, nire organoak eman nahi ote ditudan, lurperatzea ala erraustea nahi dudan...

Zer balio izango du dokumentuak? Noren esku geratuko da?

Norberak adierazi dezake dokumentuaren hasieran, zein momentutan nahi duen berau martxan jartzea; edo egoitza batera joaten naizenean, edo etxean laguntza zerbitzua jasotzen hasten naizenean...

Dokumentua noren esku utzi ere bakoitzak erabakitzen du; bikoteari, seme-alabei, gizarte langileei... Dokumentu honek ez dauka balio legalik —osasun arloko Bizi-Testamentuak daukan bezala—, baina bai etikoa. Dena den, notario baten esku uzteko aukera ere badago, nahi izanez gero.

Norentzat da dokumentu hau?

Guztiontzat, izan ere, garbi dagoena da denok beharko ditugula zaintzak. Noiz, ez dakigu, baina beharko ditugula bai. Helburu nagusia, beharbada, ez da dokumentua betetzea; helburua da, batez ere, zaintzen inguruko hausnarketa egitea gure ingurukoekin. Dokumentua www.gizartepolitika.eus atarian eskura daiteke eta baita udaleko gizarte zerbitzuetan ere.

Aurkezpena

Zuk jakitea nahi dut...

Nire bizitzaren zaintza modu partekatuan planifikatzeko gida

Quiero que sepas...

Guía para planificar el cuidado de mi vida de manera compartida

Hizlaria: Olaia Arana
Gizarte langilea eta Etika Batzordeko kidea

Tokia:

**SANTA ANA
ANTZOKIA**

Eguna:

**ABENDUAK 11
ASTELEHENA**

Ordua:
18:00etan

Antolatzaileak:

Laguntzaileak:

ONIZAN

Biomagnetismoa
Blokeo energetikoak eta gorputzeko disfuntzioak aurkitzeko teknika da, besteak beste. Gorputza testatuz eta imanez bidez, osasuna berreskuratzea du helburu.

Atrapatutako emozioak
Gorputzean atrapatutako emozioak askatzeko teknika da. Emozio hauek gure izaera baldintzatzen dute.

Coaching ontologikoa
Norbere buruaren potentziala garatzea helburu duen laguntza

Onizan Terapia Naturalak
Kale Zaharra, 42
20560, Oñati. Gipuzkoa.
T 629 424 520
@onizantn

Erakusleiho lehiaketa abian da

Epaimahaiaren hiru sari nagusiez gain, **Herritarren** eta **Haurren** sariak emango dira aurten ere

Udaleko Sozioekonomia sailak antolatuta, Oñatiko XVI. Erakusleiho lehiaketa egingo da aurten, abenduaren 11tik 31ra bitartean. Herriko denda eta zerbitzu guztiei luzatu zaie lehiaketan parte hartzeko gonbita. Azaroaren 30era arteko epea zuten izena emateko eta, beraz, ez dakigu zenbatek parte hartuko duten, baina udalaren webgunean (www.oñati.eus) atal bat prestatuko da bozka eman ahal izateko eta bertan egongo dira ikusgai lehiaketan parte hartzen duten saltoki guztien erakusleihoak.

BOST SARI

Iaz bezala, aurten ere bost sari emango dira. Alde batetik epaimahaiak erabakitako hiru sari nagusiak, 500€, 300€ eta 200€-koak. Balorazioak egiterakoan **konposizioa**, **argiztapena**, **koloreak** eta **originaltasuna** dira kontuan hartuko diren irizpideak.

Horiez gain, Herritarren saria (500€) eta Haurren saria (300€) ere emango dira. Herritarrena aukeratzeko bozketa Internet bidez egingo da, udalaren webgunean (www.oñati.eus) propio egokituko den leihoan. Orrialde honetan ipin dugun QRak eramango zaitu

bertara. Lehiaketan parte hartzen duten erakusleihoetan ere jarriko dira bozka eman ahal izateko QRak. Herritar bakoitzeko bozka bakarra onartuko da. Abenduaren 20a (14:00) da bozkatzeko azken eguna. Bozka ematen duten herritarren artean 100€-ko erosketa bonua zozkatuko da, herriko saltokietan gastatzeko.

Haurren saria 5 eta 12 urte arteko gaztetxoen botoz erabakiko da. Horretarako, orrialde hauetan ikus daitezkeen bozka-txartelak bete eta Txaloka ludotekan edo Gaztelekuko Sotoan eta Kuboan egongo diren hautestontzietara eramane behar dira, abenduaren 20a (14:00) baino lehen. Bozka ematen dutenen artean 100€-ko erosketa bonua zozkatuko da.

Lehiaketan parte hartzen duten erakusleihoei abenduaren 11rako prest egon beharko dute, eta hala mantendu beharko dira abenduaren 31ra arte, gutxienez. Udalak 50€-ko laguntza emango dio parte hartzaile bakoitzari, materiala eta argiztapena ordaintzen laguntzeko. Sari banaketa abenduaren 22an egingo da.

100€-ko

erosketa bonu
bana zozkatuko
da **Herritarren** eta
Haurren sarien
bozketan parte
hartzen duten
herritarren artean

HERRITARREN saria

Internet bidez bakarrik bozkatu ahal izango da, udalaren webgunean. Ondoko QRak eramango zaitu bertara. Azken eguna abenduak 20.



HAURREN saria

5-12 urteko haurrek parte har dezakete. Orri hauetan dauden bozka orriak bete eta Txaloka ludotekara edo Gaztelekura eramane behar dituzte abenduaren 20a baino lehen.



OÑATIKO XVI. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Haurren saria hautatzeko orria

5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko haurrei zuzendua

Nire botoa erakusleiho honi ematen diot:

SALTOKIAREN IZENA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____


TELEFONOA: _____

SARIA

Botoa eman duten haurren artean 100 euroko erosketa-bonua zozkatuko da

DATUEN TRATAMENDUA

ONARTZEN DUT. Jakinarazten dizugu isilpean mantenduko ditugula ematen dizkiguzun datu pertsonalak, eta datu horiek Oñatiko Udalaren titulartasuneko eta ardurapeko fitxategi batean sartuko ditugula, OÑATIKO XVI. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAKO Haurren sariaren hautaketan eta zozketan erabiltzeko. Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez, Datuak Babesteko Oinarriko Legeak espresuki aitortzen duen ikusteko, zuzentzeko, kentzeko eta errefusatzeko eskubidea izango duzu, horretarako Oñatiko Udaleko Sozioekonomia sailarekin harremanetan jarrita: Oñatiko Udala. Foruen Enparantza 1, Oñati.



Tonbola jarriko du aurten Txandak Gabonak girotzeko

Txandako saltokietan egiten diren erosketen truke boletoak jasoko dituzte bezeroek, eta saridunak izanez gero, plazan egongo den tonbolara joan beharko dute saria jasotzera

600 sari banatuko ditu bezeroen artean

Gabonak ate joka ditugun honetan, TXANDA dendarien elkarteak kanpaina berezi bat antolatu ohi du urtero, tokiko kontsumoa sustatzeko eta bezeroen leialtasuna saritzeko asmoz. Eta aurten TONBOLA bat antolatzea erabaki dute Txandako kideek.

Abenduaren 15etik urtarrilaren 4ra bitartean egongo da martxan tonbola. Egun horietan zehar Txandako saltokietan erosketak egiten dituzten bezeroek boleto batzuk jasoko dituzte, eta saridunak baldin badira, Foruen plazan egongo den tonbolara joan beharko dute saria jasotzera. Egurrezko etxola bat egongo da bertan, musika eta guzti, Gabonak girotuz.

Tonbolan 600 txartel egongo dira, eta boleto sarituarekin doazen herritarrek aukeratu egin beharko dute bat, zein sari daukan jakin barik. Sorpresa!

Askotariko sariak egongo dira: erosketa bonuak, erosketa poltsak, katilu edo kikarak, mugikorra esekita eramateko gailua, '3 segidan' erako jolasak, kantiplorak... Gainera, sari bakoitzarekin batera landatzeko hazi-bola bat jasoko dute, izan ere, 'Oñatin hazi urtia' izango baita kanpainaren leloa, 'hasi' eta 'hazi' hitzekin jolastuz, herriko komertzioek Oñati hazten laguntzen dutela azpimarratzeko

Gaztelekuko DBH-4ko prozesuko neska-mutilak egongo dira tonbolan, opariak banatzen, diru-sari baten truke. Modu horretan, gazteen eta herriko komertzioen arteko lotura sendotu nahi da. Eskola egunetan arratsaldean egongo da zabalik tonbola, eta larunbat goizetan ere bai.



Dwingi Dwingi taldeak egingo du Gabonetako TXANDAREN spot-a

Komedia giroko film labur eta esketxak egiten benetako artistak diren *Dwingi Dwingi* taldeko kideek egingo dute aurten tokiko komertzioaren aldeko Gabonetako spot-a, Txandaren enkarguz. Edukiaren inguruan ez digute ezer aurreratu, baina jakin badakigu nahikoa barre egin dutela herriko denda ezberdinetan grabatutako esketxetan. Euskaraz grabatu dute, baina gaztelarazko azpiztituluekin plazaratuko dute, herritar guztiek ulertzeko. Datozen egunetan zabalduko dute *teaser*-a sare sozialetan, aho gozagarri moduan, eta abenduan zehar ikusi ahal izango dugu lana osotasunean. Irrikaz gaude ikusteko.



OÑATIKO XVI. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Haurren saria hautatzeko orria

5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko haurrei zuzendua

Nire botoa erakusleihen honi ematen diot:

SALTOKIAREN IZENA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____


TELEFONOA: _____

SARIA

Botoa eman duten haurren artean 100 euroko erosketa-bonua zozkatuko da

DATUEN TRATAMENDUA

ONARTZEN DUT. Jakinarazten dizugu isilpean mantenduko ditugula ematen dizkiguzun datu pertsonalak, eta datu horiek Oñatiko Udaren titulartasuneko eta ardurapeko fitxategi batean sartuko ditugula, OÑATIKO XVI. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAKO Haurren sariaren hautaketan eta zozketan erabiltzeko. Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez, Datuak Babesteko Oinarriko Legeak espresuki aitortzen duen ikusteko, zuzentzeko, kentzeko eta errefusatzeko eskubidea izango duzu, horretarako Oñatiko Udaleko Sozioekonomia sailarekin harremanetan jarrita: Oñatiko Udala. Foruen Enparantza 1, Oñati.





ORTUZABALA TALDEA

elikadura-burujabetza helburu

Ortuzabala elikadura taldeak hamabi urteko bidea egin du jada, **pertsonen** eta **ekosistemaren** zaintza ardatz dituen kontsumo eredua sustatzen. **Bertako** nekazaritza **ekologikoaren** aldeko apustua egiten.

Gaur egun **36 barazki-otar** banatzen ditu astero bazkideen artean. Abenduan **elkarteko kide** egiteko aukera zabalduko dute.

Tokiko produktu fresko eta sasoikoak kontsumitzea, modu ekologikoan landutakoak —pestizida eta landare edo hazi transgenikoak erabili gabe—, ekosistemaren eta pertsonen osasuna zainduz. Horiek dira elikadura-burujabetzaren oinarriak, eta horixe da ORTUZABALAn egiten dutena taldea martxan jarri zenetik, duela hamabi urte.

Tamalez, Euskal Herrian gero eta nekazari gutxiago dago. Debagoiena eskualdean, adibidez, azken hamar urteotan 23tik 10era jaitsi da ekoizle kopurua eta, ondorioz, merkatua multinazionalen esku geratzen ari da eta beraiek erabakitzen dute zer jaten dugun.

Horren aurrean, Ortuzabala

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





◀ Maite, Jabi eta Ousmane dira Ortuzabala taldearen baratza lantzen duten nekazariak.

▶ Eltzian daukaten lokalean egiten dute barazkien banaketa asteartero

BARAZKI OTARRAK

Hiru otar mota banatzen dituzte Ortuzabala taldean:

1. OTAR TXIKIA

Pertsona batentzat
8,50€ / astean

2. OTAR ERTAINA

Bi pertsonentzat
13,50€ / astean

3. OTAR HANDIA

Familia tamainakoa
23,50€ / astean



bezalako elikadura taldeek auto-hornikuntzan oinarritutako kontsumo eredua sustatzen dute; hau da, bertan produzitzen duguna bertan kontsumitzea, milaka kilometroa ekoiztako elikagaiak ekartzen ibili barik, horren atzean dagoen guztiarekin: garraioa, produkzio industrialia, lan baldintza kaskarrak... Eta, bien bitartean, hemengo nekazariak estu eta larri, bizimodua aurrera atera ezinik.

'ORTUZABALA' ELIKADURA TALDEA

Elikadura Taldeak (Kontsumo Talde bezala ere ezagutzen dira) nekazarien eta herritar kontsumitzaileen arteko aliantzak dira, alde bakoitzak konpromiso batzuk hartzen dituelarik: nekazariak barazki freskoak hornitzeaz arduratzen dira —asteartero banatzen dituzte barazki otarrak elkarteko kideen artean—, eta hauek hileroko kuota bat ordaintzen dute trukean. Hau da, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko zuzeneko harremanean oinarritzen da, bitartekaririk gabe; barazkiak zuzenean doaz baratzetik sukaldara.

Abantaila edo onura asko dituen kontsumo eredua da, bai nekazariarentzat eta baita kontsumitzaileentzat ere. Ekoizleari diru-iturri finko bat ziurtatzen dio, hileroko, eta horrek berebiziko garrantzia du nekazaritzatik bizi nahi duenarentzat. Bestalde, kontsumitzaileak badaki bertako barazki fresko eta osasungarri osatutako otar bat jasoko duela astero. Beste modu batera esanda, zer jaten duen eta jaten duen hori nola ekoiztea izan den erabakitzeak aukera ematen dio elikadura taldeko kide izateak.

Ortuzabala taldeak 10.000m²-ko ortua dauka Murgia auzoan, Santa Krutz Errota eta Bustinzurieta baserriek utzitako lursailetan, eta modu ekologikoan ekoizten ditu barazkiak —produktu kimikorik erabili gabe—, lurra, ekosistema eta pertsonen osasuna zainduz, eta ekoizpen edo produkzio eredu

jasangarri baten aldeko apustua eginez. ENEEK (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua), Biolur (Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Elkarteak) eta ALEKA (Euskal Herriko Hazi Ekologikoak) elkarteekin eta beste elikadura talde batzuekin batera egiten dute lan, sarean, elkarri lagunduz.

Egun 36 barazki-otar banatzen dituzte Ortuzabala taldeko bazkideen artean, asteartero, Eltzian daukaten lokalean. Produkzio handiko sasoiaren kontserbak ere (kalabaza purea, tomate saltsa...) egiten dituzte, taldeko kideen artean banatzeko produkzioa txikiagoa den garaian.

Baina elikadura taldeak ez dira hartu-eman komertzialera mugatzen eta, hala, taldeko kideek (nekazari eta kontsumitzaile) zenbait bilera egiten dituzte urtean zehar, banatzeko landaketak planifikatzeko eta izaten diren gorabeherak komentatzeko. Gainera, hiruzpalau auzolan ere antolatzen dituzte urtean zehar, lan-karga handiko sasoiaren nekazariari laguntzeko, kipulak eta porruak landatzen edo kalabazak biltzen, adibidez.

KIDE BERRIAK

Sei hilean behin, bazkide berriak egiteko aukera zabaltzen dute Ortuzabala taldean, ekainean eta abenduan. Beraz, elikadura taldeko kide egin nahi izanez gero, oraintxe duzue aukera. Informazio gehiago: **623 254 141 / ortuzabala@gmail.com**. "Gaur egun daramagun bizimoduarekin ez diogu garrantzia handirik ematen alimentazioari, baina uste dugu inportantea dela balioa ematea jaten dugunari. Eta elikadura talde bateko kide baldin bazara, badakizu 'km-0'ko elikagai fresko eta osasungarriak kontsumituko dituzula eta, beraz, ingurumena zaintzen ari zarela eta, gainera, nekazariari duintasunez lan egiteko aukera ematen diezula", diote Ortuzabalako kideek. ■

Irakurketa Errazeko tertulixan taldea jarriko du martxan udal liburutegiak

Abenduan irekiko da izen-ematea eta urtarrilaren 11n egingo da aurreneko tertulixan saioa

Kultur gune biziak izatea da liburutegi publikoek egun duten helburua eta erronka, eta horretan dihardu Oñatiko udal liburutegiak. Horren erakusle dira azken urteotan martxan jarri diren 'Tertulixan' irakurle taldeak eta idazketa lantegia, adibidez. Egundau irakurle talde daude udal liburutegian, eta urtariletik aurrera bosgarrena jarriko da abian, Irakurketa Errazekoa. Arrazoi bategatik edo bestegatik —immigrazioa, adina, eskolatzeko urria...— irakurtzeko zailtasunak dituzten herritarrei zuzendutako taldea izango da eta Monica Leivak dinamizatuko du.

Zer da Irakurketa Erraza (IE)?

Idatzizko informazioa (literatura, eskuliburuak, web-orriak, publizitatea, korrespondentzia instituzionala...) irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat eskuragarri egiteko diseinutako formatua da. Sinestea zaila izan daitekeen arren, gure gizarteko pertsonen %30 inguruk ez du ondo ulertzen irakurtzen dutena... IE informaziorako sarbidea eta, beraz, aukerak demokratizatzen ditu.

Eta zer da Irakurketa Errazeko talde bat?

Gizarteratzeko eta ikasteko gune bat da, IE formatura egokitutako eta erraz ulertzeko modukoak diren irakurketa-materialen inguruan. Parte hartzaileak astean behin elkartzen gara, testuak ozen irakurri eta horien inguruan hitz egiteko ordu eta erdi inguruz. Oñatin ostegunero elkartuko gara urtariletik aurrera. Irakurketak gaztelaniaz izango dira eta liburutegian arduratuko dira

DATAK

Urtarrilaren
11n hasi eta
martxoaren 14
arte, 10 saio.
Ostegunetan,
10:30-12:00

IZEN-EMATEA

Abenduan
zehar, udal
liburutegian:
telefonoz
943716111
whatsappez
688732826
emailaz
liburutegia@
onati.eus

egokitutako liburuak doan esku-ratzeaz, parte-hartzaileak ezertaz kezkatu beharrik ez izateko.

Nori zuzenduta dago? Zein dira hartzaile potentzialak?

IE Kluba gizarte osoari zuzenduta dago. Batez ere irakurtzeko zailtasunak, aldi baterakoak, (etorkinak, eskolatzeko eskasa,...) edo iraunkorrak (ikaskuntza-nahasmenduak, aniztasun funtzionala, zahartzaroa...) dituzten pertsonen parte hartzen dute, baina nahi ez den bakardadea jasaten duten pertsonen, eta parte-hartzaileen laguntzen dieten irakasle, zaintzaile eta boluntarioek ere parte hartzen dute. Denak ongi etorriak dira. Liburutegian izena eman besterik ez duzu egin behar.

Beste herri batzuetan ere gidatzen dituzu Irakurketa Errazeko taldeak. Zer nolako esperientzia izan duzu?

Orain arte Urretxun eta Legazpin dinamizatu ditut IE taldeak. Urretxukoak zazpi urte daramatza martxan eta Legazpikoak hiru. Biak oso anitzak dira, belaunaldi ezberdinetako jendeak parte hartzen du eta esperientzia oso aberasgarria da.

Tamalez, ez dago belaunaldi eta kultura ezberdinen arteko trukerako espazio asko, eta hau horietako bat da. Taldekideen erritmoak eta beharrak errespetatzen ditugu; asko ikasten dugu elkarrengandik eta ondo pasatzen dugu. Denon ekarpena da interesgarria, konfiantza giroa sustatzen da eta lotura estuak sortzen dira partaideen artean.





MONIKA LEIVA

"Idatzizko informazioa (literatura, esku-liburuak, korrespondentzia instituzionala...) irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzenduta dago Irakurketa Errazeko taldea.

"Belaunaldi eta kultura ezberdinetako jendeak parte hartzen du eta oso aberasgarria da. Taldekieen erritmoak eta beharrak errespetatzen ditugu eta asko ikasten dugu elkarrengandik. Gainera oso ondo pasatzen dugu.

Espazio inklusiboa da, benetan. Pertsonalki, pribilegio gisa bizi dut.

Zer nolakoak dira irakurgaiak? Zein berezitasun daukate?

Era guztietako testuak irakurtzen

ditugu; nobelak, ipuinak, eskuliburuak, egunkariak, sukaldaritza errezetak edo Giza Eskubideen Adierazpena bera ere bai. Ez dugu mugarik jartzen. Nire lana entzutea da, talde bakoitzerako zein gai diren interesgarri eta erabilgarriak, eta egokitutako

▲
Monica Leivak bi urte darama gaztelerazko Tertulixan taldea dinamizatzen Oñatiko udal liburutegian. Irakurketa Errazekoa ere berak gidatu eta dinamizatuko du

irakurketa ezberdinen bitartez jorratzea.

Zorionez, IE formatuan dauden liburu eta materialen bildumak ez dio hazteari utzi 1968an Suedian hasi zenetik. Euskadi 2012an hasi zen irakurketaren demokratizazioa bultzatzen 'Euskadi Irakurketa Erraza Elkartea' ren sorrerarekin eta Blanca Mataren bultzadarekin. Haien lanari esker, irakurketaren demokratizazioarekiko sentsibiltatea gero eta handiagoa da erakunde publiko eta pribatuaren artean.

Noiztik diharduzu irakurle taldeak dinamizatzen?

2015etik. Umea nintzelarik, nire sorterrian, Badalonan, deskubritu nituen Irakurle Klubak, eta ordutik erakarri naute. Irakurtzea, irakurle kualifikatuekin (eta ez naiz dinamizatzaileez soilik ari) partekatzea eta eztabaidatzea, idazleak ezagutzeko aukera... Ez al da zoragarria!

Leku askotan —kartzeletan, egoitzetan, liburutegietan, sotoetan...— daude irakurle klubak, eta askotarikoak, gainera —munduko literatura klubak, klub feministak, poesia klubak, komiki klubak, filosofia klubak, Irakurketa Errazekoak...—. Isilean hazten den zuhaitzen basoa da.

Momentu honetan, 15 talde dinamizatzen ditut eta oso ondo funtzionatzen dute. Oñatin, duela pare bat urte hasi nintzen, Ivan Repilaren lekukoa hartuta gaztelaniazko Tertulixan taldean. Erronka handia da, tertuliakideen maila oso altua delako. Hemen oso ondo irakurtzen da. ■



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net f i



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

ULMAk bere historiaren parte izan den hodi makina jarri du Garibaiko biribilgunean

45 urtez aritu da lanean eta funtsezkoa izan da Ulma Construction-en garapenean, aldamioetarako hodiak fabrikatzeko aukera ekarri baitzuen

Badira makina batzuk enpresen ekoizpen katearen parte izateaz gain enpresak eraldatzen dituztenak eta haien historiako funtsezko pieza bihurtzen direnak. ULMAren kasuan, hodiak fabrikatzeko makina 45 urtez aritu da lanean etenik gabe eta ULMAren eraldaketaren parte izan ostean, orain Garibai auzoko biribilgunean hartuko du atseden.

1975ean Garibai auzoko enkofratu eta aldamioren fabrika jarri zenetik, ia gelditu gabe aritu da lanean, 2021ean makina modernoago batekin ordezkatu zuten arte. Lanean aritutako hamarkada horietan guztietan funtsezkoa izan da ULMA Construction-en negozioan, baina hodiak fabrikatzeko makina hori ekoizpen bitarteko bat baino zerbait gehiago da.

Hala gogorarazi du Jose Luis Madinagoitiak, ULMAko presidente eta ULMA Construction-eko gerente izan zenak eta gaur egun erretiratuta dagoenak: "Hodiak fabrikatzeko makinak eraldaketa oso garrantzitsua ekarri zuen, eta ULMAri aukera eman zion bere aldamiotarako hodiak fabrikatzeko, horretarako hornitzaileen mende egon beharrik ez izateko". Autonomia horrek "gaur egun ezagutzen dugun ULMAren oinarriak ezarri zituen", azpimarratu du.



ULMAko langileak makina Garibaiko biribilgunean kokatzen



Garbitu eta margotu egin dute makina, biribilgunean ipini aurretik

45 urtez aritu da lanean eta funtsezkoa izan da Ulma Construction-en garapenean, aldamiotarako hodiak fabrikatzeko aukera ekarri baitzuen

Urte askotan zuekin

☎ 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte



MAPFRE
OÑATI

ULMAk 1961ean ekin zion bere ibilbideari, eta hodi makina hori 1975eko ekainean instalatu zen, Debagoieneko beste kooperatiba bati, Talleres Arrasate, CI-ri, erosi zitzaionean Makina iritsi zenean erronka bat izan zen, orduan ez baitzeukaten harekin lan egiteko ezagutzarik. Erabili ahala ikasi zuten, planoak berrikusiz edo beste leku batzuetan nola egiten zuten ikusiz. Horrela, ikasten eta azken produktua hobetzen joan ziren.

Ordutik, makina 45 urtez aritu da ekoizten, ia etengabe. Oso denbora tarte luze eta emankorra izan da, eta makina bera eraldatzen joan da, negozioak eboluzionatu ahala.

"Makina martxan jarri eta espero genituen emaitzak lortzen hasi ginenean, orduan hasi ginen pentsatzen zer aukera eskaintzen zizkigun eta nola hobetu genezakeen makina, izan ere, hodiak fabrikatu ahal izateak aukera batzuk ireki zizkigun", azaldu du Javier Sotilek.

Martxan jarri zenetik, milaka eta milaka aldamio eta puntak fabrikatzea ahalbidetu duen lehengaiaren sortzailea izan da 45 urtez, eta 2021eko ekainean amaitu zuen bere zeregina.



Makina ia 45 urtez aritu da ekoizten, ia etengabe. Oso denbora tarte luze eta emankorra izan da

JOSE LUIS MADINAGOITIA

ULMAko presidente ohia

"ULMAri aukera eman zion aldamioetarako hodiak fabrikatzeko eta, beraz, kanpoko hornitzaileen menpe ez egoteko."

JAVIER SOTIL

MCCko lehendakariordea

"Makina martxan jarri eta espero genituen emaitzak lortzen hasi ginenean, makina bera nola hobetu pentsatzen hasi ginen."

ARRASATEN Zuatzu Klinika da zure konfiantzazko klinika



Ginekologia
eta Obstetria



Jaio aurreko
diagnostikoa



Bularreko
patologia



Laguntza
Bidezko Ugalketa



Ginekologia
birsortzailea

8 Mediku
profesional
zuri arreta
emateko

Eskatu zure hitzordua
Zuatzu Mondragón
Nafarroa Etorbidea,
4 (behea)
943 792 018

OÑATIKO JENDARTEA EHUNTZEN

Euskara eta Kulturartekotasuna proiektua abiatu da ELKAR HEZIn, partaidetzari eta herrigintzari ekarpena egingo dien ekimena



Elkar Hezi ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntza batzordeak, ALOÑA guraso elkarteak, UEMAK eta Oñatiko Udaleko Hezkuntza ordezkariak eratutako talde eragileak sustatu du ekimena.

Ikasturte honetan abiatu da Elkar Hezin **Euskara eta Kulturartekotasuna** proiektua. Izenak bi ideia horiek bildu nahi ditu: alde batetik euskara, alegia, euskaraz bizitzen jarraitzeko asmoa; eta bestetik kulturartekotasuna, hau da, kultura ezberdineko hainbat kide dituen errealitatea aintzat hartzea.

Bi ideia edo errealitate horiek ongi uztartzeko helburua du egitasmoak eta bereziki eskola komunitatearen barruko komunikazioan jartzen du arreta, batez ere familiekiko eta gurasoekiko komunikazioan: eskolak deitutako guraso batzarrak, mailaz mailako bilerak, gurasoen arteko whatsapp taldeak, gurasoentzako oharrak eta komunikazioak...

Elkar Hezi ikastetxeko Hizkuntza Normalkuntza batzordeak, ALOÑA guraso elkarteak, UEMAK eta Oñatiko Udaleko Hezkuntza ordezkariak eratutako talde eragileak sustatu du ekimena.

ABIAPUNTUA: Partaidetza sustatu elkarerraginak aberasteko

2015. urtean Elkar Hezi ikastetxea IKAS KOMUNITATE bihurtu zen. Ordutik, *Ebidentzia zientifikoetan eta ikaskuntzaren eredu dialogikoaren* printzipioetan oinarritutako jarduerak martxan ditu, Hezkuntza Jarduera Arrakastatsuak deritzonak hain zuzen. Honen guztiaren helburua da ikasle guzti-guztien **ongizate integrala eta arrakasta akademikoa** sustatzea. Bi dira bereziki lan egiteko modu honen zutabeak: 1, haur eta gazteei ahalik eta elkarerragin aberatsenak eskaintzea eta horretarako, 2, familien eta gainontzeko eragileen parte hartzea erraztea eta bultzatzea.

Familien parte hartzea baina, erronka garrantzitsua izan da. Gaur egun astero, Elkar Heziko geletan hainbat amek, aitaitek, amamek, aitek edota herritarrek, boluntario bezala parte hartzen dute, dena den, zailagoa izaten da ezaugarri zehatz batzuk dituzten familiak erakartzea, hala nola, euskara menperatzen ez dutenak. *Euskara eta Kulturartekotasuna* egitasmoak duen helburuak bat egiten du ikastetxean somatzen zuten beharrarekin, izan ere, bide honetan familia guztien parte hartzea bilatzen dute, beste batzuen artean.

PROIEKTUA ABIATZEA

Lehenago ere eskolak eman izan ditu pausuak arlo horretan. Orain, azkeneko urteotan aldatuz joan den errealitate bati erantzun eta beste urrats bat eman nahi dute egitasmoan parte hartzen duten eragile guztiek.

Proiektua ez da hutsetik abiatu: UEMAK duen kezka batetik eta UEMAK berak egin duen gogoeta batetik abiatu da: herri euskaldunetako eskoletan

Euskara eta Kulturartekotasuna. UEMAKo ekimenaren GAKOAK

- Oñati euskaraz bizi den herria da, eta horrela izaten jarraitu nahi du. Ez dira asko gurea bezalako arnasmuneak, eta erabakigarriak gara euskararen iraupenerako.
- Euskaraz dakiten eta ez dakiten familien arteko harremanak sendotu nahi ditugu, elkar entzun eta elkar ulertu nahi dugu. Horretarako, espazio batzuk konpartitu behar ditugu.
- Guraso batzuek ez dakite euskaraz, eta horien parte-hartzea bermatu nahi dugu. Haien seme-alaben integrazioarako garrantzitsua da.
- Atzerriar jatorriko familia batzuk ere kezkatuta daude euren hizkuntzekin. Ikastetxean eta herrian hizkuntza horiekin ere adeitasuna erakutsi nahi dugu, elkarrekikotasuna oinarri.

ikasleen eta familien profila aldatzen ari da, baita hizkuntzari dagokionez ere, eta asko dira, gaur egun, euskararik ez dakiten edo erabiltzen ez duten familiatan bizi diren haurrak. Errealitate hori gero eta hedatuagoa da eta eragina dauka hizkuntzaren ezagutza eta erabileran. Bai haurren artekoan, bai eskola-komunitatearen barruko komunikazioan. Kulturartekotasuna ezaugarri gero eta nabarmenagoa da, beraz, eta euskaraz bizitzen jarraitzeko asmoa ere sendoa da.

Horretarako, *Euskara eta kulturartekotasuna udalerrri euskaldunetan* ekimen aitzindaria abiarazi zuen UEMAK Zal-dibian 2021-2022 ikasturtean, bertako udalarekin, eskolarekin eta hainbat eragilerekin batera, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatearen (HUHEZI) laguntzarekin. Ondoren, Aizarnazabalen, Ibarra, Leitza eta Ondarroan landu du UEMAK egitasmoa. Ikasturte honetan Oñatin eta beste hainbat herritan heldu diogu proiektuari: Alegian, Arbizun, Areatzan, Asteasun, Azpeitian, Beran, Itsasondon, Legorretan, Lizartzan, Markina-Xemeinen, Mutrikun.

Elkar Hezin, 22-23 ikasturtean hasi zen talde eragileak proiektua lantzen.

EKIMEN ZEHATZAK

23-24 Ikasturte hasieran egin zen proiektuaren aurkezpena, batetik lankideen aurrean eta bestetik gurasoei. Ordutik, tresna eta egiteko modu berriak abian jartzen hasiak dira:

EGIN NIRI ERE EUSKARAZ KANPAINA



Haur Hezkuntzako txikiek **EGIN NIRI EUSKARAZ** kanpainen parte hartuko dute. Hemen gako batzuk:

- Herriko haur zein gazte guztiei lehen hitza beti euskaraz egin nahi diegu, aurreiritziak albo batera utzita.
- Haurrak dira helduoi euskaraz hitz egiteko eskatzen digutenak. Zuek zarete eredu.
- Seme-alabei euskaraz hitz egin nahi diegu, eta baita beraien gelakide edota lagun direnei ere.
- Jatorri atzerritarra dutenen seme-alabak euskal herritarrek eta euskaldunak dira.
- Euskaraz hitz eginda, euskara ikasten lagunduko diegu.
- Gurasoek bakarrik ez, merkataria, ostalari, administrazio langile, gidari, osasun langile... guztiek egin behar diete euskaraz.
- Eta haurrei bakarrik ez, helduei ere gogoan izan behar dugu beti lehen hitza euskaraz egin behar diegula.

Xuxurlariak:

Guraso bileretan, orain arte, irakasleak azalpenak ematen zituen, eta familiek aditu eta zalantzaren bat izanez gero galdetu egiten zuten. Oinarrian bilerak euskaraz egiten genituen baina euskarri bisuala gazteleraz egoten zen. Baina bi arazo hauek ikusten genituen. Alde batetik, familia erdaldunak erdia ulertu gabe gelditzen ziren, eta bestetik, elebitan egin behar izanez gero, euskaldunek bi aldiz aditu behar izaten zuten bilera guztia, eta iraupen aldetik ere bikoitza zen. Bilera horietan, itzulpena behar duen familia bakarra izanez gero, xuxurlaria izaten du ondoan, hau da, aldibereko itzulpena egiten dio. Hau ez da gauza berria, dena den, proiektuaren bitartez hobeto bermatzen da. Euskaraz ez dakitenak gehiago baldin badira, Telegram aplikazioa jotzen dute.

Aldibereko itzulpena:

Telegram aplikazioa eskuko telefonoan deskargatuta, familiek **idatzizko** testuen itzulpena momentuan jasotzeko aukera dute. Euskara hutsean bidali ahal dira mezuak, eta familiek nahi duten hizkuntza hartuko dute mezua, Telegram konfiguraturatuta duten hizkuntza. Honetaz gain, **ahoz** aldibereko itzulpena ere egin daiteke aplikazioaren bitartez, beti ere, jaso nahi den hizkuntza xuxurlatzeko norbait badago. Gure errealitatea ez da euskaldunena edo gaztelaniaz aritzen direnena bakarrik baina xuxurlariaren funtzioa momentuz, sistematikoki gaztelaniaz bakarrik egin ahal dute eta tarteka ama baten laguntzarekin baita arabieraz ere.



Iker Zubia, Aloña Guraso Elkarteko ordezkaria

"Komunikazioa guztioi nola iritsi ezin asmatu ari ginen. Herri euskalduna euskaraz egin baina bakoitzaren errealitatea ulertuta. Proiektu honek bideak zabaldu dizkigu".



Nerea Barruso, irakasle eta Hizkuntza Normalkuntzako batzordekidea

"Irakaslearen artean gurasoekiko komunikazioa kezka iturri izan da azken urtetan eta proiektu honek irtenbide posible baten ilusioa piztu digu".



Asier Lauzurika, udaleko Hezkuntza batzordeburua

"Euskararen baitan jatorri eta identitate anitzak harilkatuko dituen herria izan nahi du Oñatik. Proiektu hau urrats garrantzitsua da bide horretan; euskara erdigunean duen hezkuntza komunitate anitz batean elkarren arteko komunikazioa eta denon parte hartzea bultzatzen du".



Arritxu Zelaia, UEMAKo ordezkaria

"Euskara erdigunean jarri eta aldi berean Elkar Hezi osatzen duten guztien parte hartzea lortu nahi da."



Yessica Lorena Arboleda Robledo

"La traducción simultánea ha sido fundamental para entender las reuniones, lo cual me motiva a participar más".

21,3 milioiko aurrekontu proposamena aurkeztu du udal gobernua 2024rako



Xabier Igartua, Ogasuna batzordeko burua, eta Izaro Elorza, alkatea, aurrekontu proiektua aurkezten

23.119.920 euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du udal gobernu taldeak datorren urterako, aurtengoa baino %10 handiagoa. Diru sarrerei dagokienez, azpimarratzekoa da udalak 2,1 milioi jasoko dituela Next Generation funtsetik, —hurrengo bi urteetan garatuko diren bederatzi proiekturi lotuta—, eta Udalen Finantzaketarako Foru Funtzak 753 mila euroko igoera izan duela.

Udal enpresen dibidendoei dagokienez %37ko jaitsiera izan dute, argindarraren salmenta prezioaren jaitsieraren ondorioz, batez ere, baina, hala ere, 930 mila euro jasotzea aurreikusten da.

Gastuei dagokienez, KPlaren pareko igoera izango dute ondasun eta zerbitzu gastuek, eta baita heriko talde eta eragile ezberdinei zuzendutako dirulaguntzek eta

transferentzia arruntek.

Inbertsioen atalak %47ko igoera izango du, batez ere Next Generation funtsetik lortutako 2,1 milioiko dirulaguntzei esker. Guztira, 4,3 milioi euro bideratuko dira inbertsio ezberdinetara.

Azpimarratzekoa da, bestalde, proposatutako aurrekontuak 1,5 milioi euroko aurrezki arrunta aurreikusten duela, "Udalaren egonkortasun ekonomikoa bermatzen delarik", gobernu taldeak adierazi duenez. "Herritar ororen ongizatea eta gizarte berdinzale batean oinarritutako eredua bilatzen dugu eta horretarako bitartekoak eskaintzen dituzten aurrekontuak prestatu ditugu", azaldu du Izaro Elorza alkatea. Oposizioaren esku dago orain dokumentua, eta ustezkerik ez bada, abenduaren 14an onartuko dira 2024ko udal aurrekontuak.

4,3 milioi INBERTSIOETARAKO

Hauek dira aurreikusten diren inbertsioetako batzuk:

- Torreauso eta Zañartu arteko bidegorria eraikitzea **569.000€**
- Usakoko aisialdi eremuko paisaia lehengoratzea **200.000€**
- Emakumeen Etxea egokitzeko bigarren fasea **600.000€**
- Udaletxe plaza inguruko esku-hartze integrala, erabilera anitzeko espazioa egokitzeko **300.000€**
- Irisgarritasun lanak herriko gune ezberdinetan **300.000€**
- Kiroldegiko kantxa urdineko teilatua berritzeko **278.000€**
- Urgain-Errekalde eskolan jolas eremu berde eta inklusiboa egokitzeko 2. fasea **232.000€**
- Disuasio-aparkalekua egiteko herrigunetik hurbil **200.000€**
- Energia jasangarritasunerako inbertsioetarako **150.000€**
- Arantzazu eta Araozko aparkalekuak monitorizatzeko sistemarako **126.000€**

Beste batzuk:

- Berrintasun Planaren baitan aholkularitza juridikoa abiatzea
- Oñatiko Herrera Plan integrala lantzea
- Gaztetxoen euskararen erabilera hobetzeko ekimenak
- Zaintza eredu berriak lantzea
- Auzokonpost sistema indartzea
- Euskaltegia eta Txipistin zerbitzua berrantolatzea
- ...

JUANJE MARGOAK
627 818 247




ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



EKINTZAILETZA ASTEA



Oinarrizko
Zikloak

DBHKO
TITULUA
LORTZEKO



Erdi mailako
Zikloak

TEKNIKARI
TITULUA
LORTZEKO



Goi mailako
Zikloak

GOI TEKNIKARI
TITULUA
LORTZEKO

Lanbide bat ikastea
nahi duten gazteentzat

Iturigorriko zelaia garbitu ditu Udalak

2022ko Partaidetzazko Aurrekontuetan bozka gehien jaso zuten 9 proposamenetako bat izan zen

2022an burutu zen Partaidetzazko Aurrekontuak prozesuan herritarrek lehenetsitako bederatzi proiektuetako bat izan zen Iturigorriko zelaia garbitzeko proposamena. Zehazki, 257 bozka (%31,46) jaso zituen, eta ondoko argazkian ikusten den moduan, Udalak egin ditu, jada, garbiketa lanak. Zelaian eta bidean zeuden sastrakak moztu dituzte. Egitasmoak 3.500€-ko aurrekontua zuen baina garbiketa lanak udal brigadak egin dituenek, kostu zuzenik gabe burutu da.



Herriko 688 kale-argi berritzeko lizitazioa abiatu du Udalak

LED teknologiadun luminariak ipiniko ditu, kontsumoa murrizteko helburuarekin. Ia 500.000 euroko inbertsioa egingo du.



Argindar kontsumoa %75 murriztea eta urtean 71.000€ aurrezte aurreikusten da.

Udal gobernua iaz aurkeztu zuen Energia Planean jasotako helburuetako bat argindar kontsumoa murriztea da, besteak beste kaleko argiteria publikoa berrituz. Egun herriko kaleetan dauden 2.741 argi puntuetatik 1.642 LED teknologiadunak dira, baina gainerako 1.099 luminariak sodio lurrunezkoak dira eta kontsumo altua dute. Udalaren asmoa da ahalik eta argi gehien LED teknologiarara aldatzea, eta orain 688 luminaria berri hornitu eta instalatzeko lizitazioa jarri du abian 498.848 euroko (BEZ barne) aurrekontuarekin. Argi puntu berri hauekin energia kontsumoa %75 jaitea aurreikusten da, eta 71.000 euro aurrezte urtean. Horrenbestez, orain egingo den inbertsioa zazpi urteren buruan amortizatzea espero da.

Elorregiko autobus geltokiko komuna erabilgarri dago



Autobusen ordutegiak erakusteko pantaila digitalak urtea amaitu aurretik ipiniko ditu Aldundiak

Oñati, Bergara eta Arrasateko udalek eta Debagoieneko Mankomunitateak sinatu duten hitzarmenaren arabera, azken horrek hartuko du bere gain geltokiaren garbiketa eta mantentzearen ardura. Horrenbestez, autobusen ordutegiak erakusteko pantaila digitala jartzea besterik ez da falta. Urtea amaitu baino lehen instalatuko omen du Foru Aldundiak.

Oñatiko udala pozik azaldu da, azkenean geltoki duin bat izango duelako Elorregik. Orotara, 223.000 euroko inbertsioa eskatu du geltokiak, eta berau egikaritzaren ardura Oñatiko udalak hartu duen arren (proiektua idatzi, obra esleitu, jarraipena egin...) neurri bereko ekarpena egingo dute Oñati, Bergara eta Arrasateko udalek (29.700 euro bakoitzak) eta gainerakoa Foru Aldundiak ordainduko du

NEGUKO ORDUTEGIA ARANTZAZUKO AUTOBUSEAN

Azaroarekin batera neguko ordutegia sartu da indarrean Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzuan. Hala, goizeko 7:30etan irteten da lehen autobusa Oñatitik, eta 17:30etan azkena. Arantzazutik behera 8:00etan lehena eta 18:00etan azkena. Gogoratu, Arrikruzera joateko aukera ere badagoela, aurrez 900 12 14 00 zenbakian eskaera eginda.



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es


Herriko txoko guztietara iritsi nahi duzu?

jarri zure iragarkia aldizkarian

publi@onati.eus

Landa-lursailen mugaketa digitalki jasotzeari ekin dio Udalak

1, 2 eta 3 poligonetako lursailen mugak eguneratuko dira lehen fasean



Lur-jabeek udaletxean eskura dezakete lursail bakoitzaren dokumentazio-karpeta

Udalerriko lursailen mugaketa digitalki jasotzeko asmoa du Udalak eta, hasteko, Oñatiko landa katastroan dauden 27 poligonoetatik lehenengo hiruretako partzelen mugaketa eguneratzeari ekin zaio. Horretarako, Geograma enpresa kontratatu du Udalak.

Lan honen helburua da mugetan egon daitezkeen akatsak zuzentzea eta horien inguruan sor daitezkeen zalantzak argitzea. Lursailen jabetza zehaztea eta mugei zein mugarriei GPS koordinatuak ematea eta modu horretan, geroko lanak eta tramiteak erraztea.

Udalak hartuko du bere gain landa-lursailak topografikoki mugatzearen kostua, baina lur-jabeen laguntza ere beharrezkoa da. Jabeek liburuxka bana jasoko dute beraien partzelako datuekin eta mugakideak diren lursailen zerrendarekin, eta beraien egitekoa izango da mugarriak aurkitzea eta mugakideekin adostea, topografikoki jaso baino lehen. Urtarrilaren 19a da liburuxka horiek bete eta udaletxean entregatzeko azken eguna. Informazio gehiago, udaletxeko 'Auzoak eta landa garapena' departamentuan.

Piktogramak, autismoa duten haurren autonomia indartzeko



'Bagabiltz-Eskolako Bidea' proiektuaren baitan, argazkikoak bezalako piktogramak marraztu ditu udalak herriko 24 zebra-bidetan Autismoaren Espektoaren Nahasmendua duten pertsonen autonomia indartzeko. Ikastetxe, jolas-gune eta ekipamendu publikoen inguruko zebra-bideak lehenetsi dira.

TXONDORRAN BUELTAN

AZAROAK 26. DOMEKIA,
goizez, Oñatiko basoetan

Auzolanak: ORBELETIA ETA ESTAI-BATZELA

ABENDUAK 2. ZAPATUA,
Arantzazuko basoetan

Mendi irteera, hitzaldia eta erakustaldia:
BASOAREN HISTORIAN BARRENA.
Artasoko zuhaltz-motzen ibilbidea (PR-GI-210).
Bidean zehar Alvaro Aragón Ruano hizlaria eta Pago-mozte erakustaldia izango dira.

URTARRILAK 9. ASTEARTEA,
19:00etan, Kultur Etxeko zine aretoan

"TASIO" film-emanaldia.

OTSAILA 6. ASTEAZKENA,
18:30, Kultur Etxeko zine aretoan

"CULTURA FORESTAL. DESDE DONDE VENIMOS Y HACIA DONDE VAMOS"
Hitzaldia: Julio Castañeda

MARTXOAK 23. ZAPATUA,
Oñatiko basoetan

"BASUA MAKINA BARIK" ekintza

APIRILAK 4. 21. arratsaldean,
Kultur Etxeko erakusketa gelan

LURRETIK IKATZERA erakusketa

MAIATZA, San Martiñen

Auzolanak: EGURRA, TXONDOR-PLAZIA ETA ETXABOLIA PRESTAKETIA

EKAINAKI

TXONDORRA IXUTU
3-4 asteetan TXONDORRA EGOSTEN egongo da.

AUZOLANAK: behin piztuta dagoela TXONDORRAREN ZAITZAK eta, egosten denean IKATZA ATERATZEKO LANAK auzolanean egingo dira.

Txondorra egosten dagoen bitartean EKINTZA EZBERDINAK egongo dira haren bueltan.

• EKINTZA BAKOITZAREN INGURUKO ZEHAZTAPENAK, DATAK GERTURATU AHALA ARGITARATUKO DITUGU. • EGURALDIAREN ARABERA EGITARAUEN ALDAKETAK EGON DAITEZKE. JAKINARAZIKO DUGU.

BADIHARDUGU, TXONDORRAN BUELTAN

Urte erdi izango da honezkero, gutako batek "Txondorra in bixu/bixonau!" esan ebela eta, ttirri-ttarra bagoiaz, ekainian ixutuko dogun txondor horren prestaketa lanekin aurrera eginaz. Zaharrek esanda, jakiñaren gañian gengozen, txondorra egittiak badakola bere lanak! Zer esanik ez, txondorrik egitten jakin ez eta dana ikasi egin bihar dogun kuadrilla batentzat... Eskerrak juntau garien kuadrilla hontan alkarren artian osatuaz eta herritarrei galdetuaz-galdetuaz, lan danok eta beste batzuk gehixau be, modutu ahalko dittugun. Bestela, ezin da.

Etara-barri dogun egitarauak nabarmen izten dau, txondorra egittia ez ezik, beste asmo batzuk be badagozela tartian: gure ingurua zerbait gehixago ezagutu, gaur egungo egoeriaz hausnartu edo herrixan lehenau izandako bizimoduen berri eukittia, bestiak beste. Hau danau egitteko, edozein herritarren partehartzia ongi etorrixa dala azpimarratu gura dogu, danon artian egindakua alkarreaz gozatuko dogulako, azken finian. Hasi besterik ez gara egin eta, honezkero, asko dira modu batian edo bestian, euren laguntzia eskaini eta emutera gerturatu xakunak: lantresnak eskainiaz, eskulanak egitten, euren bizipenak kontau doskuenak, hamarretakuak gertaketako prest agertu diranak, ezer jakin ez eta ikasteko gogoz taldera batu xakunen bat be bai...

Datozen hilabetietan be egongo da zer egiña eta, holaxe jarraiketia espero dogu; egin ahala ikasten, auzolanian, ikatz zakukada batzuk etara alde. Baiña, azkenengo helburu horri bakarrik begiratu biharrian, bide danian zihar agertuaz doiazan kontuei hari-izpixak etara eta alkarri lotzen, harixa eten ez dedin!

Txondorran Bueltan lantaldia



Merezitako omenaldia jaso du Iñaxio Ibarondok

55 urte daramatza Iñaxio Ibarondok parrokiako koruko zuzendari lanetan, eta pasa den igandean koruko kideen eta parrokiaren omenaldia jaso zuen hainbeste urtez eta musu truk egindako lana aitortu eta eskertzeko. Broma artean, 5.500 bat hileta elizkizunetan egongo zela gogoratu zuen Ibarondok berak. Urte hauetan guztietan etxekoen aldetik izan duen babesa eskertu eta koruko kide guztiekin partekatu nahi izan zuen omenaldia.


'Arantzazu' dokumentala estreinatu dute

Arantzazuko ondarea eta bertatik egindako ekarpen sozial, kultural eta espiritualak ezagutzera ematea du helburu

Azaroaren 16an ZINEBIn (Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia) egin zen aurre-estreinaldia, baina azaroaren 28an aurkeztu da ofizialki Arantzazulab-ek eta Arantzazu Gaur Fundazioak sustatuta egin den **'Arantzazu. 36 zm, 5 mende, herri bat'** dokumentala. Pello Sarasuak (Amasa-Villabona, 1969 zuzendu du lana, eta Arantzazuko ondarea eta bertatik egindako ekarpen sozial, kultural eta espiritualak ezagutzera ematea du helburu.

500 urtetik gora daramatzate frantziskotarrek Arantzazun, eta beraiei motibazio erlijiosotik abiatuta, ondare immaterial baliotsua eman diote herriari, Anaidia, komentua ez ezik, gizartea ere badelako frantziskotarrentzat. Horregatik ari dira herrigintzan, modu etengabea, berrikuntza sustatuz, ausardia. Arantzazuko frantziskotarrek herriarekin duten lotura eta alor ezberdinetan egindako ekarpenak beren espiritualitatearekin nola lotzen den ezagutzera ematea da lan honen helburua. "Dokumentalean bi begirada uztartzen dira: batetik, barrura begirakoa, komentu barrura, alegia, beraiei bizi-aukera ulertzeko; eta kanpora begirakoa, herrian eta herriarekin egin duten lana ulertzeko", azaldu du Sarasua zuzendariak. Horretarako, zazpi frantziskotarren eta Arantzazurekin harreman esanguratsua izan duten hainbat pertsonen (Xabier Euzkitze, Lorea Agirre, Miguel Angel Alonso del Val, Miren Elgarresta, Jon Sarasua...) testigantzekin osatu dute dokumentala. Kristau espiritualtasuna, Humanismoa, Artea, Natura eta Euskara bezalako gaiak ditu hizpide eta gogoetagai.

Arteman komunikazio agentziak ekoitzi du lana, eta EITB zein Berria komunikazio taldeen babesa ere izan ditu dokumentalak. Gandiaga Topagunean egin den estreinaldian Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundia, Oñatiko udala, Eusko Ikaskuntza, Kutxa, Mondragon Korporazioa eta euskal unibertsitateetako ordezkariak izan dira eta denek azpimarratu dute Arantzazuk herri honi egindako ekarpena.



Zazpi frantziskotarren eta Arantzazurekin, modu batean edo bestean, harreman esanguratsua izan duten hainbat pertsonen testigantzak bildu dituzte

Abenduaren 6an Durangoko Azokan (Irudienea-Zugaza, 11:00-13:00) ikusi ahal izango da dokumentala, eta 2024tik aurrera Euskal Herriko txoko ezberdinetara zabalduko dute

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI


ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
 - Lentzeria
 - Umeen jantziak
- Kale Barria, 54 OÑATI

**Behinguan jasoik burua,
ez hadi izan txorimalua!
Barretxua kenduz kajairi,
jarriko xau aurpegixairi
eta *urtia Oñatin hazi.***

Gabon honeittan Oñatin erostiak sarixa dako. Txandako saltokittan egindako erosketa bakoitzagatik Gabonetako Tonbolan parte hartzeko txartel bat jasoko dozu. Sarittua suertaitten bazara, zatoz plazako itxabolara eta aukeratu zure zenbakixa, danak dakoi sarixa! 600 sari banatuko dittugu, zorte on!



Gabonetako Tonbolia

Abenduak 15 - Urtarrilak 4

Oñatiko plazan



txanda



Txanda Elkartea



OÑATI
dabilen herria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SARIA

Psicho-Coaching Kabinetea

Ekintzailea: Yurdi Perez Noa

Helbidea: Zubillaga auzoa, 20 (Olaburu-ZM8)

Telefonoa: 606 034 796

Emaila: yurdi@pereznoa@gmail.com

Sare sozialak: @psicho_coaching

"Coaching-a, terapiak, eta laguntza emozionala eta psikologikoa eskaintzen diegu nerabeei, helduei eta adineko pertsoneri"



Olaburu zentroko (Zubillaga, 20) ZM-8 bulegoan dago Psicho-Coaching Kabinetea (606034796).

'EKITEN' atala berreskuratu dugu udaleko Enplegu departamentuaren laguntzarekin sortzen diren enpresa ekimenen berri emateko, tarteka. Oraingo honetan Yurdi Perezek zabaldu duen Gabinete Psicho-Coaching zerbitzua aurkezten dizuegu, ongizate eta askatasun emozionala aurkitzen lagunduko dizun zerbitzua.

Zer dela eta aukeratu duzu autoenpleguaren bidea?

Azken urteetan enpresa batean jardun dut lanean, baina nire benetako ametsa eta pasioa hau da, jendeari emozionalki laguntzea. Formazioa badaukat (Biologian lizentziatua, psikopedagogoa, psikologo holistikoa, Coach masterra, terapia ezberdinetan aditua...), eta urratsa emateko unea dela uste dut. Badakit ez dela erraza ekintzailea izatea, baina aldi berean, abentura zirrargarria da, erronka bat, eta oso atsegina izan daiteke. Emakume bezala ahaldundu eta barruan daukadan ekintzaile sena ateratzeko unea dela pentsatu dut. Atsegin dudan zerbait egiteko eta munduan eragin positiboa izateko aukera bat da.

Psicho-Coaching kabinete bat ireki duzu. Zer da zehazki?

Ongizate emozionaleko espazio bat da. Gure helburua da pertsonak beren prozesu, helburu eta jomugetan gidatzea, laguntzea eta orientatzea, beraien potentzial handiena lortzeko eta bizitza oso eta zoriontsua bizitzeko tresnak eta baliabideak eskainiz. Gure filosofia oso integratzailea da; elementu zientifikoak, filosofikoak eta holistikoak konbinatzen ditugu, ikuspegi osoa eta pertsonalizatua eskaintzeko gure bezeroei.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzu? Coaching-a, terapiak, laguntza emozionala eta psikologikoa eskaintzen diegu nerabeei, helduei eta adineko pertsoneri. Enpresentzako coaching zerbitzuak ere bai. Nerabeei laguntzen diegu gustatzen zaiena aurkitzen, etorkizunean benetan gustatzen zaien horretan lan egin ahal izan dezaten. Pertsona helduei emozioak eta *Burnot* sindrome ospetsua (laneko estres mota bat da) kontrolatzen laguntzen diegu. Jubilatuari, hasierako hutsunea gainditzen eta bizitzari zentzu berria aurkitzen. Eta aiton-amonei bakardadea eta emozioen gorabeherak kudeatzen laguntzen diegu.

Gure bezeroek espazio segurua, beroa eta profesionala aurkitzen dute hemen, askatasunez hitz egiteko eta behar duten laguntza jasotzeko. Beren indarguneak aurkitzen eta indartzen laguntzen diegu, zailtasunak gainditzen, emozioak kudeatzen, harremanak hobetzen, erabakiak hartzen, ohiturak aldatzen, autoestimua handitzen eta bizitzan nahi duten arrosa-tonua ikusten.

Laguntzarik izan al duzu enpresa hau abian jartzeko?

Bai, alde batetik emakume ekintzaileei laguntzea helburu duen Foru Aldundiko 'EMEKIN' programan lagundu zidaten bideragarritasun plana egiten, besteak beste. Oñatiko udaleko enplegu teknikariak ere lagundu dit prozesuan eta Udalak Olaburu zentroko lokal bat utzi dit alokairuan, proiektua sendotu bitartean.

Erakusketa, hitzaldia eta bisita gidatuak OÑATIKO TRENA OROITZEKO

TRENA INAUGURATU ZELA 100 URTE BETE DIRA AURTEN



Vasco-Navarro
trenak San
Prudentzion zeukan
geltokia.
(Argazkia: Azpeitiako
Tren Museoa)

Vasco-Navarro trenaren Oñati eta San Prudentzio arteko adarra inauguratu zela 100 urte bete ziren irailaren 30ean. Hori dela eta, Jabi Bujanda oñatiarrak egin duen **Vasco-Navarro trenaren historia amaitu gabe: itxi behar ez zen tren**a azterlanean oinarritutako erakusketa egongo da ikusgai turismo bulegoan abenduan zehar.

Gainera, abenduaren 12an Juanjo Olaizola historialari eta ikertzaileak hitzaldia ('**Vasco-Navarro Oñatin**') emango du kultur etxean (18:00).

Bestalde, abenduaren 16an Jabi Bujandak berak gidatutako bizikleta ibilaldia egingo da trenaren ibilbidean zehar (San Prudentzion, 11:00etan).

Azkenik, hilaren 30ean '**Oñatiko tren**a' bisita egingo da (Turismo bulegoan, 11:00. Dohainik).

TURISMO AUKERAK ABENDUAN

TURISMO BULEGOA

—Abenduaren 6tik 10era '**Oñatiko altxor**ak' bisita gidatua (13:00).

—Abenduaren 8an '**Kandelen gaua**' Sancti Spiritus unibertsitatean (18:00-20:00).

TXOKOLATEIXIA

—Abenduaren 6tik 9ra bisita gidatua '**Kakaoaren bidaia eta Vasco-Navarro tren**a' (12:00). Erreserbak: 605 763 595

ARRIKRUTZ

—Abenduaren 6tik 10era 'Galeria 53' bisitatzeko aukera.

—Abenduaren 6an (10:30) eta 9an (15:00) **Espeleo-Txiki** irteera (6 urtetik gorakoentzat).

—Abenduak 8 eta 10 '**Ilunpeko Altxor**ak' (15:00), +3 urtekoentzat.

—Abenduaren 30etan '**Lehoiak Oñatin**'. Bisita gidatua Arrikrutzen (12:00) eta tailerra Oñatiko turismo bulegoan (16:30).

ABENDUAK 12, HAUR LIBURUTEGIAN, 18:00

'Azken galdera amari' liburua aurkeztuko du Elkar Zainduz taldeak udal liburutegian

Minbizia duen ama baten eta bere semearen arteko maitasun istorioa kontatzen duen ipuina da. Heriotza eta doluaren gaia haurrekin lantzeko erremintak eskaintzen ditu.

Manex Beristainek (Azpeitia, 1977) idatzi duen Azken galdera amari ipuina aurkezteko saioa antolatu du Oñatiko Elkar Zainduz taldeak, udal liburutegiaren laguntzarekin. Abenduaren 12an izango da, Haur Liburutegian, 18:00etan.

Benetako gertaeretan oinarritutako liburua da. Ekain haurraren eta minbizia duen bere amaren arteko maitasun istorioa kontatzen du; istorio gordina bezain samurra.

5 urtetik gorako haurrei eta familiei zuzendutako ipuina da, eta haurren artean heriotza, dolua, bakardadea, galera edota beldurra bezalako kontzeptuak lantzeko eta kudeatzeko baliabideak eskaintzen ditu.



▲
5 urtetik gorako
haurrei eta familiei
zuzendutako
liburua da.
Aurkezpen
ekitaldira haurrak
gurasoek
lagunduta joatea
gomendatzen da.



Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiaitui Kortabarria
Irakaslea
Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com
www.4sgoiena.com

**Gezalaga
Margoak**

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

bigga. studio

Kolaboratzaileak:

Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Salamancako herri bateko armarrian, nafar ikurra

Beñi Agirre, idazle eta historialaria

Ciudad Rodrigoko eremuan dagoen herri txiki batean, 2017an 203 biztanle zituenak (106 gizonezko eta 96 emakumezko), harro eta dotore erakusten dute herriko armarrian Nafarroako ikur kateduna. *Sierra de Franciako* iparraldeko isurian Anaya (Anaia) de Huebra izeneko beste herri txiki batekin partekatzen duten lautadan.

Armarria lau atalekoa da, ixa moduan banatua eta irudikatua: lehenengoan Gaztela eta laugarrengoan Nafarroa, gule koloretan biak; bigarrena eta hirugarrena berriz, Jasokunde andre mariaren patronazgoaren urrezko koroa azur kolorearen gainean.

Ez da segurua, ez baitago dokumentatua, baina euren elezahar batek dionez Nafarroako Antso VII. Azkarrak bere esku zuen herriko gaztelua menia-berme moduan utzi zion Gaztelako Alfontso VIII.ari Guadalajarako Itunean, 1207an. Gaztelako Alfontso nafar kostaldea (Gipuzkoa barne) zazpi urte lehenago konkistatu zuen bortxaz, 1200ean. Miramolinen kateak berriz, 1212koak dira. Hortaz, Salamancako herriaren armarriko kateak Nafarroako ikurrak erakusten dituenaren aurrekoak dira. Posible al da?

Aipatutako herria Abusejo da eta oso posible da nafar ikurra euren herriko ezkutuan paratu izana hala nahi dutelako, sudur puntan jarri zaielako alegia. Guri, berriz, nahi dugun nafar ikurra Jaurilaritzako ezkutuan jartzea debekatzen digute eta Gipuzkoakoan Belateko 12 kanoiak ezartzen dizkigute anaien arteko iraingarri. Honetaz guztiaz azaroaren 28an, larunbata, hitz egingo dugu Hernanin.

OHAR -DEIALDIAK

GABONETAKO PROGRAMAZIO BEREZIA OÑATI IRRATIAN



Eguberri eguneko irratisaio berezia gidatuko du Mikel Aranburuk, beste urte batez. Gabonak atzerrian emango dituzten oñatiarrak elkarriketatuko ditu eta egunerokotasuna aurkeztzen digun ahots ezagun bat gonbidatuko

du Oñati irratiara. Sariak eskuratzeko aukera ere izango da, **Mauxka** jatetxearen, **Odriozola** harategiaren eta **Txinparta** Bertso Eskolaren eskutik. Baina abenduaren 25ean ez ezik, 24an, 31n eta urtarrilaren 1ean ere, irratisaio bereziak eskainiko ditugu eta urtean zehar grabatutako bertso jaialdiak entzungai izango ditugu. Gabonetako emanaldi bereziak 10:00etatik 11:30etara izango dira, FM 107,4an.

OÑATIKO INAUTERIA - 2024

Entseguak eta izen-ematea

Otsailaren 24an ospatuko da Oñatiko Inauteria.

- ENTSEGU EGUNAK:

- Aurten lehenengoz irtengo direnentzat entsegu extrak: Abenduak 5 (20.00etan) eta abenduak 9 (12.00tan).

- Entsegu orokorrak: Abenduaren 12an hasiko dira eta urtero lez, asteartero (20.00etan) eta larunbatero (12.00tan) egingo dira.

- IZEN-EMATEA:

- Entseguetan egingo da, abenduaren 12tik aurrera. **Ohar garrantzitsua:** aurten parte-hartzaile kopuru mugatua izango du Oñatiko Inauteriak; beraz, garrantzitsua da entseguetara joan eta izena ematea.

TAILERRA: 'Lehen sorospenak eta haurtzaroko ohiko gaixotasunak'

Oihana Martinez de Albenizen eskutik. Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta, herritar guztiei irekia. Abenduak 12, Elkar Hezi ikastetxean.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

'BELAR MOZTU BERRIA'

Suizidioaren gaia jorratzen duen bertso sorta honekin Eibarko San Andres bertsopaper lehiaketako lehen saria eskuratu du Urko Egañak.

Egilea: Urko Egaña Calderon / **Doinua:** Gizakiak harri bat

— 1 —

Nahizta ez den inorren
gustuko platera
espikatzera noa
zer noan jatera.
Bizitzak kondenatu
nau bakardadera
heriotz korridore
moduko batera,
ta ezin dut edota
ez dut nahi atera! (Bis)

— 2 —

Bizitza horren polit
ez zait iruditu,
dena delako zulo,
ta ez zirrikitu!
Nahizta bakardadean
bakarrik aurkitu,
bakardadean ez naiz
bakarrik sentitu!
Hutsune denak ahots
batek bete ditu. (Bis)

— 3 —

Momentuoro ahots
horrek hemen darrai!
Ez nago ziur zer den
lagun ala etsai...
Baina ondoan beti
hor eduki dut zai,
izan ez naizenean
ezertarako gai,
inork laguntzerik ez
ninduenean nahi! (Bis)

— 4 —

Buruaren aginduz
galdu dut ordena
ta ni naiz buruketa
ororen problema,
hori da behintzat ahots
honek dioena.
Gaur arte ahots honi
entzun diot dena,
ta suizidatzea dut
gauzarik onena. (Bis)

— 5 —

Zerbait behar dut nere
penak kitatzeko
iluntasun honetan
argiz gidatzeko.
Maiz ahotsak esaten
dit suizidatzeko
aurkitu ezin dudan
hura bilatzeko
aurkitzen dudanean
libre izateko. (Bis)

— 6 —

Nire barrukaldetik
datorkidan ahots
honek ni nigan senti
arazi nau arrotz!
Isiltasun honetan
dena zait arrabots...
Bizitzaren zelaia
uztera noa motz
belar moztu berria
bihur dadin ahotz. (Bis)



— 7 —

Ahotsaren esanak
kontutan harturik
sabaitik soka bat dut
zintzilaturik
ta azpira aulkitxo
bat inguratutik...
Bertara igoko naiz
zut, orekatutik...
Berez dudana oreka
faltak behartutik. (Bis)

— 8 —

Kolpetik berotu nau
nere odol hotzak,
esku zabalik hartu
nazan heriotzak!
Begiak itxi ditut
ta estutu hortzak,
azken taupadak eman
ditzala bihotzak
ezer gehiago esan
ez dezan ahotsak! (Bis)



Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- | | | |
|------------|-------------|---------------|
| ✓ Heriotza | ✓ Istripuak | ✓ Etxebizitza |
| ✓ Autoak | ✓ Ontziak | ✓ Aurrezkia |
| ✓ Bizitza | ✓ Osasuna | ✓ Laborantza |

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84

mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



Arantzazuko Ama, 19A • 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

OÑATIKO GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO DIRU LAGUNTZEN DATUAK 2023

2023an ere, Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak, Oñatiko gazteen emantzipazioa lortzeari zuzendutako diru laguntza lerroa martxan izan du, eta berriro ere 35 urte arteko herritarrek eskatu ahal izan dute. Aipatzea laguntza hauen xedea ondorengoa dela: Oñatiko udalerrian ohiko egoitza izateko alokairu erregimenean etxebizitza bat duten 18 eta 35 urte bitarteko herritarrei etxebizitzaren alokairu-gastuen zati bat ordaintzea. Horrekin, alde batetik, Oñatiko Udalak herriko gazteen emantzipazioan laguntzea du helburu. Baina beste alde batetik, gazteak alokairuko etxebizitzaren erabiltzaile nagusi diren neurrian, pairatzen duten alokairu-prezioetan ere eragin nahi du, egun existitzen diren alokairu altu horiek jaisteko helburuarekin.

Helburu horiek kontuan hartuta, beste urte batez (eta badira 9), emantzipaziorako diru-laguntzak banatu ditu Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak.

Aipatzekoa da urte azkeneko urtetan eskaera kopurua nahiko egonkortuta dagoela, azken urte hauetan 40 eskaera inguruan mugitzen ari garelako, eta aurtan ere osora 37 eskaera jaso dira. Kontuan izan behar dugu Eusko Jaurlaritzaren kontzeptu berdinean ematen ari den Gaztelagun izeneko diru-laguntza ere hor dagoela, eta diru sarreraren arabera gure gazteek Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza eskatzera behartuta daudela. Kontuan izan behar da urtero gure eskaeren erdi ingurua Eusko Jaurlaritzara bideratu beharrean aurkitzen garela, eta hala ere eskaera berrien kopurua mantentzen da. Zein da honen irakurketa? Ba Gaztelagun programa eta Oñatiko dirulaguntzen artean etxebizitza

emantzipazioa lortu duten gazteen multzoa oso handia dela, eta argi dagoela Oñatiko gazteen artean diru laguntza hauek egonkortuta daudela, horiekin kontatzen dutela, eta euren emantzipazioan duten eragina nabarmena dela. Horrela, dirulaguntza hauekin aurtan Oñatiko Udalak 45.000€ baino gehiago banatu ditu herriko gazteen emantzipazioari begira.

Horrekin batera, bada beste datu aipagarri bat, berriro ere nesken eskaera-kopurua handiagoa izan dela. Beraz, bosgarren urtez jarraian dirulaguntza hauei esker nesken emantzipazio kopurua altuagoa izan da mutilena baino, 22 neska eta 15 mutil. Neska gazteen kolektiboan positiboki eragiten ari gara, inolako zalantza barik, are gehiago aipatzen badugu gehienak konpartitu gabeko etxebizitza batera emantzipatzea lortu dutela ere nabarmendu behar delako, %63.3 hain zuzen ere.

Eskatzaileen perfilaren inguruan, adina da nabarmen-tzeko beste datu bat, eskatzaileen gehiengoa 30 urte edo gutxiago baitauka, %72.2a hain zuzen ere.

Gauzak horrela, laburbilduz, berriro ere Oñatiko Udaleko Gazteria sailaren izenean irakurketa oso positiboa egin beharrean gaudela esan beharra dago. Hare gehiago bere egunean egindako parte hartze prozesuan gazteengandik jasotako eskaera bat asetzen ari garelako, eta ahal dugun neurrian Oñatiko gazteen ongizatean zuzen eragiten gainera.

Ion Lopez Santamaria
Haur eta Gazteria Teknikaria

HAUR ETA GAZTERIAKO AGENDA

Abendua

- 1** Gabonetako eskulanak.
17:00etatik aurrera, Ludotekan.
- 2** Letagin + Niña Coyote y Chico tornado.
22:30etan, Gaztelekuan.
- 3** Euskararen eguna.
17:00etan, Gaztelekuan.
- 6** Iluntasunean barrena *scape room*.
Gaztelekuko kuboan.
- 22** "Olentzero eta Mari Domingiren bila"
Gaztelekuko kuboan.

26 Ipuin kontalaria.
11etatik aurrera, Ludotekan.

27 Txokolate beroa + Olentzero eraikitzen eskulana
11etatik aurrera, Ludotekan.

28 Go!azen 10.0.
17:00 eta 19:00etan, Santa Ana Antzokian.

Urtarrila

2 Jolas kooperatiboak+paratxuta+eraikuntza jolasak
11etatik aurrera, Ludotekan.

3 Naturarekin esperimintatzen.
11etatik aurrera, Ludotekan.

Pake Lekuko argazki lehiaketa

Pake Lekuk antolatutako 'Hirugarren adinekoen uda' lehiaketako lehen saria Arantza Anduagaren 'Campos de lavanda' argazkiarentzat izan da, eta bigarrena Begoña Markuletaen 'Garaio' argazkiarentzat. Bazkideen saria Nati Ormazabalek irabazi du. Oroigarria eta bi lagunentzeko afaria irabazi dute sari gisa.

ABENDUKO HITZORDUAK. Pake Lekuko **Aloña** abesbatzak Kantu-Koraleko Gipuzkoako jardunaldietan parte hartuko du abenduaren 11n, Oiartzunen. Abenduaren 12an, **Murgialdai** baserria ezagutzera joango dira (10:30), 'Oñati ezagutzen' ekimenaren baitan. Abenduaren 13-18 bitartean **mahai-joko**en txapelketak egingo dituzte. Hilaren 21ean **txistorra jana** (18:30) egingo dute, hilaren 28an **Bingo** berezia (17:00) Gabonetako bi saskiren zozketarekin eta hilaren 28an **'Boluntariotza Saria-2023'** emango dute.



Argk.: @tolosaldekoataria @leyrecarrasco

Sari zaparrada SUHAR-entzat

Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Suhar koruak Tolosako nazioarteko lehiaketako sari guztiak irabazi ditu

Esteban Urzelaiak zuzentzen duen Suhar koruak marka ezarri du Tolosako 54. Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan. Jokoa ziren sari guztiak, bost, irabazi zituen Suhar-ek: polifonia eta folklore ataletako lehen sariak, publikoaren saria, euskal obra baten interpretazio onenarena, eta txapelketako sari nagusia. Orain arte Suediako abesbatza batek soilik lortu zuen halako balentria Tolosako lehiaketaren historian, eta, jakina, pozik zegoen Urzelai. "Oso berezia eta hunkigarria izan zen, bai; euskal abesbatza bat izateagatik, gizonen koru bat izateagatik, euskal kantagintza izan duen tradizioa kontuan hartuta... Oso berezia, bai".

Tolosakoa irabazita, datorren urteko irailaren 14an Varnan (Bulgaria) jokatu den Europako

Sari Nagusian parte hartzeko txartela eskuratu du Suhar-ek, eta dagoeneko lanean hasita dago Urzelai. "Urruti dagoela ematen du, baina hilean entsegu bat egiten dugula kontuan hartuz, lanean hasi beharra daukagu".

Koruko abeslarien artean Xabier Mugarza oñatiarra ere badago. Abuztu bukaeran eskaini zioten taldera batzea, ahots baxuetan zegoen hutsunea betetzeko asmoz. Bertigo pittin bat sentitu zuela aitortu digu, baina aukera polita zen Tolosan kantatzea Suhar bezalako koru batekin. "Talde humano ikaragarria aurkitu dut. Askok lagundu didate taldeko dinamikan sartzen eta esperientzia ederra izan da. Opari handi bat izan da niretako". Europako sari nagusian ere Urzelairen aginduetara egongo da Xabi.



» ESTEBAN URZELAI

Oso berezia izan zen sari guztiak irabaztea; kosta egiten da halako zerbait barneratzea.



» XABIER MUGARZA

Opari handia izan da niretzat Suhar bezalako koru batekin Tolosan abestu ahal izatea

Kontzertua eta ikastaro-tailerra ESPERIENTZIEN GELAK antolatuta

Oñatiko Esperientzien Gelak antolatuta, **Dana Moya** kubatarraren kontzertuaz gozatzeko aukera egongo da abenduaren 20an Santa Ana antzokian (10:00). Bestalde, abenduaren 13, 15 eta 20an **'Curso de seguridad en la red'** ikastaroa egingo da (gazteleraz) Euskaldun Berria gelan (16:00-18:00). Prezioa, 10€.

'ORTULAGUNTZA' zerbitzurako lan deialdia

Baratzagintza profesionalan ari diren ekoizle txikiei lagundu, erreleboa bermatu eta proiektu berriak sustatzea helburu duen 'Ortulanguntza' izeneko zerbitzua martxan jarri nahi du Deba Garaia Landa Garapen elkarteak, eta zerbitzuaz arduratuko den profesionala kontratatzeke deialdia egin du. Interesatuak abenduaren 15a baino lehen bidali behar dute CVa debagaraia@debagaraia.eus helbidera. Lanaldi osoko kontratua eskaintzen da. Informazio gehiago: 943762547.



BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETA

6. postuan sailkatu da Iñaki Igartua bere aurreneko Behobian, helburu guztiak beteta

Karreraz disfrutatzea eta, ahal bazen, ordubetetik beherako denbora egiteko helburuarekin joan zen Iñaki Igartua bere aurreneko Behobia egitera. Etxean egindako azken entrenamendu saioen arabera, bazekien 55 minuturen bueltan ibil zitekeela, baina aurreikuspen guztiak txiki utzi eta 00:46:43an gelditu zuen kronoa, 6. postuan helmugaratuta. Pozik zegoen, jakina. "Bai, 46 minutuan egitea sorpresa handia izan da, eta banekien ordubetetik behera eginda, postu ona egingo nuela — laugarrenetik 2 minutura geratu naiz—. Oso gustura nago, bai. Hona iritsi ahal izateko egin dudana bidea baloratzen dut gehien. Gainera, karreran zehar asko disfrutatu nuen, eta horrek eman zidan pozik handiena", aitortu digu Igartuak.

Kontuan hartu behar da, gainera, aldagailuko arazo mekaniko batekin egin behar izan zuela lasterketa eta, ondorioz, ezin izan zituela goiko hiru pinoiak erabili. "Aldapatan oso gogor joan behar izan nuen, indar asko gastatzen nuen, eta horrek erritmoa apurtzen zidan; baina, hala ere, oso pozik nago". Igartuak 25'9 km/o.-ko batatz besteko abiaduran egin zituen Behobiatik Donostiarako hogeik kilometroak eta, zenbait unetan 60km/o.-ko abiada ere hartu zuen. Ikusgarria!

Ez da ahaztu behar aurtengo maiatzean hasi zela Igartua handbike-an ibiltzen, Torreauroko lasterketa helburu jarrita. Gerora, beste hiruzpalau karrera egin ditu, tartean triatlloi bat ere bai, eta denbora tarte labur honetan izan duen garapena eta errendimendua ikusita, gogotsu dago erronka berriei ekiteko. Datorren urtean Espainiako txapelketan parte hartu nahi lukeela aurreratu digu, helburu nagusia ahaztu barik, beti ere: kirola eginez disfrutatzea.

Igartuak eskerrak eman nahi dizkio Antxintxika Triatlloi Taldeari, berari esker hasi zelako handbike-an ibiltzen eta lan bikaina egiten ari delako kirol egokituaren alde.

Gipuzkoako eta Euskadiko txapelduna maratoian

Miren Josune Bikuña korrikalari oñatiarrrak Donostiako maratoian parte hartu zuen azaroaren 26an, eta distantzia honetan aurreneko esperientzia bazuen ere, lan bikaina egin zuen eta bera izan zen aurreneko euskal korrikalaria helmugan 03:13:53 denborarekin, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak irabaziz.



MENDI IRTEERA (ABENDUAK 17)

Bilboko portuko mendiak: Serantes

SANTURTZI-SERANTES

(452m)-ZIERBENA-PUNTA

LUZERO (309m)-LAARENA

izango da Aloña Mendik

abendurako antolatu duen

mendi irteerako ibilaldia.

Bilboko portu gainean

dauden mendietan izango

da ibilaldia, Serantes izango

delarik helburu nagusia, bere

gastelu eta gerrako fortifikazioekin.

Guztira, 14km (+750m), 5 ordu

ingurutan egiteko modukoa.

Ez du batere zailtasunik. Irteera,

goizeko 7:00etan, postetxe

parean. Izena emateko azken

eguna, abenduak 14.



GIMNASIA ERRITMIKOA (ABENDUAK 18)

Gabonetako erakustaldia

Aloña Mendiko gimnasia erritmikako taldeak Gabonetako erakustaldia eskainiko du abenduaren 18an, Zubikoako kantxa berdean (18:00). Festa giroko saioa izango da, eta, beraz, teknika arloan gehiegi zentratu barik, koreografiatutako dantza ezberdinak eskainiko dituzte. Aurretik, abenduaren 3an Aretxabaletako nagusien egoitzan egingo dute erakustaldia Aloña Mendiko gimnastek.



Gabonetako kirol hitzorduak

ARETO FUTBOL TXAPELKETA: Abenduak 27 eta 28, Zubikoako kiroldegian; **KUADRILLEN ARTEKO SASKIBALOI TXAPELKETA:** Abenduak 29, zubiko kiroldegian.

SAN SILBESTRE LASTERKETA: Abenduak 31. Gaztetxoan lasterketak (16:00) eta nagusia (+14 urte) 16:30etan. Izen-ematea 15:00etatik aurrera, plazan.

GIGAK PARTEKATUZ

AURREZTEKO TARIFA



FIBRA 500Mb

+ **MUGIKORRA 50GB**

+ **DEI MUGAGABEEKIN**

39,90€ /HIL

+ **MUGIKOR LINEA GEHIGARRI
BAKOITZA 5€-TIK AURRERA**

+ **AGILE TELEBISTA 6€/HIL**

KONTRATATU HEMEN:

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



BEZ barne. Doako instalazioa. Iraupena 3 hilabete. Kontsultatu gainerako baldintzak salmenta puntuan.

MÁSMÓV!L

AHORRA, SIN MÁS

'ARNASALDIK'

Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldearen **kontzertu-dokumentala Primeran** plataforman ikusi ahal izango da abenduaren 29tik aurrera

» Arnasaldian diskoaren zuzeneko grabaketako irudiak eta sorkuntza nahiz grabaketa prozesuaren inguruan musikariek egindako gogoetak biltzen ditu kontzertu-dokumentalak



Kontzertu-dokumentalaren bi aurre-estreinaldi egongo dira: **Durangoko Azokan** (abendua 9) eta **Oñatiko zine aretoan** (abendua 26). Oñatiko emanaldirako sarrerak (4€) hilaren 16an jarriko dira salgai

Ikus-entzunezkoak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira musika kontsumitzeko garaian. Gero eta gehiago dira musika pantaila bati begira entzuten dutenak, eta hori izan da, besteak beste, Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldea kontzertu-dokumental bat grabatzera eraman dituen arrazoietakoa bat.

'Arnasaldiak. Zuzeneko grabaketa baten kronika' du izenburua ikus-entzunezkoak (44') eta disko berriko zortzi kantuez gain, musikarien gogoeta eta hausnarketak tartekatzen ditu, sorkuntza lanaren, talde-lanaren edota grabaketa prozesuan bizi izandako sentipenen inguruan, besteak beste.

Duela bi urte ere 'Hegaldiak' diskoa atera berrikan, Goiko Bentan emandako kontzertua iruditzen grabatu zuten, baina oraingoan haratago joatea pentsatu dute eta grabazio estudioan bertan sartu dituzte kamerak.

ZUZENKO GRABAZIOA

Iragan martxoan Andoaingo Garate baserri-estudioan sartu ziren Martinez eta Zaldi Herrenak 'Arnasaldiak' diskoa grabatzera. Zuzenean grabatzea zen beraien gogoak, taldekide guztiak batera jotzen, edizio eta postproduzio askorik gabe, eta halaxe egin zuten, baina soinua ez ezik, irudiak ere grabatu zituzten eta horren guztiaren emaitza da laster ikusi ahal izango dugun kontzertu-dokumentala.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40



Arg.: Sophia Morales

Iker Martinez eta Zaldi Herrenez gain Oskar Arlanzon, Iraia Aizpuru, Ander Etxaniz eta Ane Arrutik ere parte hartu dute diskoan, eta azken bi hauek jardun dute dokumentalerako irudiak eta testigantzak biltzen. Kantu eta irudien grabaketa eta nahasketa Ibai Arrietaren lana izan da, Iñaki zubiaren laguntzarekin.

Disko berriko zortzi abestiek osatzen dute ikus-entzunezkoaren bizkarrezurra, baina, tarteka, taldekideen gogoetak (beldurrak, itxaropenak, mamuak, pozak...) eta diskoaren grabaketa prozesuan bizi izandako une berezietako giroa ere jasotzen ditu, bere gorabehera eta zailtasun guztiekin. Izenburuak berak dioen moduan, zuzeneko grabaketa baten kronika da. "Uste dut ondo erakusten duela, bai irudien bidez eta baita gure adierazpenetan ere, diskoaren grabazioak iraun zuen bi egunetan bizi izandakoa, eta musikalki ere ondo islatzen da talde bezala garatu dugun soinu propioa. Esperientzia ederra izan da taldearentzat eta gustora gaude emaitzarekin", adierazi digu Iker Martinezek.

PRIMERAN PLATAFORMAN

Laster ikusi ahal lizango dugu dokumentala. Bi aurre-estreinaldi egingo dira; bata **Durangoko azokan** (abendua 9), Irudienea gunean (11:00), eta bestea **Oñatin** (abendua 26), zine aretoan (19:30). Oñatiko emanaldirako sarrerak (4€) abenduaren 16an jarriko dira salgai www.oñati.eus atarian eta Txokolateixan.

Gero, abenduaren 29tik aurrera, **Primeran** plataforman egongo da ikusgai 'Arnasaldiak' kontzertu-dokumentala, edonoren eskura. "Pozik gaude. Gaur egun ez da erraza jendearengana iristea, eta Primeran plataforman egotea garrantzitsua da. Euskal ikus-entzunezkoentzako erreferentzia bilakatzen ari da Primeran plataforma eta hor egoteak zentzu guztia dauka guretzako. Azken batean, gure helburua da jendeari produktu polit bat eskaintzea, gure musikarekin disfrutatzeko beste era bat, kontzertuetatik aparte, eta Primeran-ek horretarako aukera emango digu".



'Un cuerpo sin instrucciones' poema liburua argitaratu du Yesenia Villanuevak

Altuna eta Hirukar liburu dendetan eskura daiteke (13€)

16 urte besterik ez dituen arren, bere lehen poema liburua plazaratu du Yesenia Villanueva, jatorri argentinarreko oñatiar gazteak. Duela bizpahiru urte hasi zen idazten, Gaztelaniako maisuari esker, eta ingurukoek animatuta erabaki du liburua argitaratzea, zabaldu eta partekatzea merezi duten poemak direla iritzita. *Un cuerpo sin instrucciones* (Íbera Ediciones) da liburuaren izenburua eta bizipenetan oinarritutako poemak jaso ditu bertan. Migrazioaz, buru-osasunaz, depresioaz, antsietateaz edo geure gorputza ez onartzeak sor ditzakeen arazoez hitz egiten du. Baina baita sendatze prozesuaz ere. Liburuak bere buruarekin hitz egiten eta hobeto ezagutzen lagundu diola aitortu digu, eta beste batzuentzat ere lagungarria izan daitekeela uste du.



Arrasateko akordeoi lehiaketara

Abenduaren 8tik 10era ospatuko den Arrasateko Akordeoi lehiaketan Jose de Azpiazu musika eskolako lau ikasle gaztek (Joanes Igartua, Laia Umerez, Haizea Idigoras eta Ane Zulueta) parte hartuko dute. Aurtengo ekitaldia XXXV. GIPUZKOA JAIALDIA izango da, eta ikasleek euren lanak interpretatuko dituzte Arizmendi Ikastolan, zapatuan, hilak 9, goizean, HASTAPENA A mailan.

 ARRIZABALAGA Aroztegia	 PAKITA Altzariak
Berezao Ind. 10 Tel. 943 78 14 64	Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21
SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK	



Iban Idigoras (bateria), Julen Agirre (gitarra eta ahotsa), Unai Lete (baxua eta ahotsa) eta Mikel Aginagalde (gitarra eta ahotsa) dira LETAGIN.



Zurrunbiloak disko berria
Eltzia, Boga eta Ona
tabernetan egongo da
salgai, 10€-an.
Baita web orrian:
www.letagin.bandcamp.com

Letagin taldeak *Zurrunbiloak* diskoa grabatu du

Abenduaren 2an aurkeztuko du Gaztelekuan, Niña Coyote eta Chico Tornadorekin

Letagin rock taldeak bere bigarren diskoa grabatu du, *Zurrunbiloak* izenekoa eta larunbat honetan (abenduak 2) aurkeztuko du *Niña Coyote* eta *Chico Tornado* donostiarrekin batera Gaztelekuan (22:30) emango duen kontzertuan. Txokolateixan eta www.oñati.eus webgunean daude salgai sarrerak (10€).

Irailean grabatu zuten lan berria Mungiako Gauda estudioan, Jon Asier Zubelzu, Iker Aginaga eta Iker Villaren gidaritzapean, eta sei kantu biltzen ditu, Letaginek hain berea duen rock estilokoak, erritmo gogor eta azkarrekin.



Mungiako Gauda estudioan grabatu zuten diskoa, irailean

Oñatiko kontzertuaren ondoren disko berriaren aurkezpen biran murgilduko dira lau oñatiarrak. Zuzeneko indartsuak eskaini, gozatu eta Euskal Herriko zein gure mugetatik haratagoko txokoak ezagutzen jarraitzea dute helburu. Pasa den astean Donapaleun jo zuten eta, dagoeneko, beste hamar kontzertu ere lotuak dituzte Euskal Herriko txoko ezberdinetan.

Letagin taldea 2018an sortu zen eta 2020an grabatu zuten lehen diskoa ('Letagin'). Aurretik *Potemkin*, *Show Business*, *Bagauda* edo *Asfiksia* bezalako taldeetan ibilitako kideek osatzen dute taldea.



'Barne sua' bideoklipa

Diskoaren aurrerapen gisa 'Barne Sua' kantuaren bideoklipa kaleratu du. Daniel Sanchezen (Skst Design) gidaritzapean grabatu dute eta hainbat oñatiarrek hartu dute parte grabaketan, tartean Adela Korkostegi eta Andres Zabala. Ikusi bideoklipa QRan.

ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Pilotalekua akelarre handi batean bihurtuko du Hots abesbatzak


'Gaueko andreak' ikuskizuna eskainiko du abenduaren 22an

Euskal tradizioa, baserria, mitologia, emakumea, sorginak, aztikeriak... Horiek denak batzen dituen ikuskizun erraldoia da 'GAUEKO ANDREAK', Hots abesbatzak abenduaren 22an Zubikoa pilotalekuan (22:00) eskainiko duena, Aitor Biain-Bidarteren zuzendaritzapean. Amaia Zipitria piano joleak eta Miel Guridi narratzaileak ere parte hartuko dute.

Musika eta narrazioa tartekatuz, sorginen historia kontatuko dute: jatorria, akelarreak, sorginkeriak, zapalkuntza eta inkisizioa... Horretarako, janzkera berezia, atrezzo aproposa eta argiztapen egokia baliatuko dute, eta sorpresak ere ez dira faltako. Hitz batean, musikaz eta euskal tradizioaz gozatzeko aukera paregabea izango da.

Musika guztia euskalduna izango da eta, tartean, ikuskizun honetarako espresuki sortutako bi obra abestuko dituzte: Inge Conderen 'Gaueko', eta Junkal Guerreroren 'Gaueko andreak'. Modu horretan, musika berria eta, bereziki, emakumeek konposatutako musika hauspotzeko ahaleginean urrats berri bat emango du Ganbara Faktoriak.

Sarrerak (8€) Txokolateixan eta www.oñati.eus atarian eskuratu ahal izango dira.



**Abestuko dituzten
kantuetako bi ikuskizun
honetarako espresuki
sortuak dira**

'Hator Hator' Gabonetako kontzertu solidarioa

Urtero bezala, Gabon giroan murgilduko gaituen kontzertua eskainiko dute herriko musika talde ezberdinek: **Ganbara**, **Hots** eta **Oñati** abesbatzak, Oñatiko **Musika Bandak** eta **Banda Gazteak**.

Abenduaren 17an izango da, Zubikoa pilotalekuan, 12:30etan. Dohainik izango da, (gonbidapena eskuratu beharko da Txokolateixan), eta amaieran diru-batzea egingo da parrokiako Misio Taldeak Dhagguel-en duen elkartasun proiektuaren (Emakumeen Eskola) alde.

Oñati Abesbatza Gabonetan

Abenduan zehar hainbat ekitaldi izango ditu Oñati Abesbatzak.

— **Hilaren 3an** Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatutako Donostiako Eguberri azokan abestuko dute.

— **Abenduaren 11n**, Arrasateko Aita Menni ospitalean abestuko dituzte gabon giroko kantak.

— **Abenduaren 17an** Zubikoa (12:30) egingo den 'Hator Hator' kontzertuan parte hartuko du.

— **Abenduaren 23an** Aita Madina txistulari taldearekin batera Gabonetako kontzertua eskainiko du Agustinoen elizan (20:00), larunbateko mezaren ostean.

— **Abenduaren 24an** Udalak antolatutako Olentzeroren kalejiran parte hartuko dute musika eskolakoekin batera.

Rossini-ren obra ezagunenetako bat, urteari agur esateko

'Petite Messe Solennelle' abestuko du **Ganbara** Abesbatzak lau **bakarlari** profesionalekin. Abenduaren 29an parrokiari.



Ganbara Abesbatzak punta-puntako produkzioa prestatu du Gabonetarako. Gioachino Rossini konpositore italiar ospetsuaren 'Petite Messe Solennelle' (Meza Solemne Txikia) abestuko dute, lau bakarlari profesionalen laguntzarekin: Ana Otxoa (sopranoa), Lucia Gomez (altoia), Aitor Garitano (tenorea) eta Juan Laboreria (baxua). Amaia Zipitria piano joleak eta Xabier Urtasun harmonium joleak ere parte hartuko dute. Guztiak ere Aitor Biain-Bidarteren zuzendaritzapean.

Obra koral erlijiosoa da 'Petite Messe', Rossini-ren ezagunenetako bat, bere musika-handitasunagatik eta sakontasun espiritualagatik. Musika barrokoa, kontrapuntua, opera estiloko pasarteak... Rossini genero ezberdinak uztartzeko zuen gaitasunaren erakusle da. Sarrerak (8€) Txokolateixan eta www.oñati.eus atarian eskuratu ahal izango dira.



**Ganbara Abesbatzak
punta-puntako
produkzioa prestatu du
Gabonetarako**

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan

ANTZERKIA

ABENDUAK 1 / 19:00

'BAKE LEHORRA'

Euskararen Egunaren harira, Tartean Teatro taldearen eskutik (8€). [Santa Ana](#)

AZOKAK

ABENDUAK 16 / 10:00-14:00

ELKARTASUN AZOKA

Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta. [Foruen plazan](#)

ABENDUAK 17 / 10:30-14:30

ARTISAU AZOKA

Oñatiko artisaugileak. [Merkatu plazan](#)

BISITA GIDATUAK

ABENDUAK 16 / 11:00

VASCO-NAVARRO TRENA

Oñati eta Elorregi arteko trenaren 100. urteurrenaren harira, bizikleta ibilaldia trenaren ibilbidean zehar, San Prudentzio eta Oñati artean, Jabi Bujandak gidatuta. [Elorregin hasita](#)

ABENDUAK 30 / 11:00

OÑATIKO TRENA

Doako bisita gidatua. [Turismo bulegoan](#)

ERAKUSKETAK

ABENDUAK 11-22 / 18:00-20:00

'GURE BAZTERRAK'

Iker Aizkorbe argazkilariaren erakusketa Euskal Herriko paisaia ezberdinetako argazkiekin. [Kultur etxean](#)

HITZALDIA

ABENDUAK 12 / 18:00

VASCO-NAVARRO TRENA OÑATIN

Hizlaria: Juanjo Olaizola historialari eta ikertzailea [Kultur etxean](#)MAKILAKIXKI
IPUIN MUSIKATUA

ABENDUAK 17, SANTA ANA, 18:00

Ganbara Kantu Eskolaren 'Oñatiko Ipuinak' proiektuaren baitan 'Makilakixki' ipuina grabatu dute Josu Elberdinek sortutako musikarekin eta Jabi Erostarberen ilustrazioekin, ipuin-CD formatuan eskaintzeko. Ganbara Txiki abesbatzak, Amaia Zipitria piano joleak eta Miel Guridi narratzaileak parte hartu dute. Urrian grabatu zuten Santa Ana aretoan, eta abenduaren 17an aurkeztuko dute Santa Anan bertan (18:00). Sarrera, 3€. Bertan erosi ahal izango da liburu edo [ganbarafaktoria.eus](#) atarian ere.

ABENDUAK 27 / 19:00

EHU-tik MARTEra JOAN-ETORRIA

EHUren zeregina 'Mars-2022' misioan eta Marteko laginen berreskuraketan. Hizlaria: Juan Manuel Madariaga (EHU). Ilatargik Astronomia Taldeak antolatuta (gaztelaraz). [Kultur etxean](#)

KONTZERTUAK

AZAROAK 16 / 19:00

MALÄMMAR

Rock talde kataluniarraren kontzertua (8€/3€). Burrunda Faktoriak antolatuta [Antixena gaztetxean](#)

AZAROAK 17 / 12:30

'HATOR HATOR'

Oñati, Ganbara eta Hots abesbatzak, Musika Banda eta Banda Gaztea Zubikoa pilotalekuan

ABENDUAK 22 / 22:00

GAUEKO ANDREAK

Hots Abesbatzaren kontzertu-ikuskizuna sorginen inguruan (8€) [Zubikoan](#)

ABENDUAK 23 / 20:00

GABONETAKO KONTZERTUA

Oñati Abesbatza eta Aita Madina txistulari bandaren eskutik [Agustinoetan](#)

ABENDUAK 26 / 19:30

ARNASALDIK

Iker Martinez+Zaldi Herrenak taldearen kontzertu-dokumentalaren aurkezpena (4€) [Kultur etxean](#)

ABENDUAK 29 / 19:00

GOSPEL KONTZERTUA

'New Orleans Gospel 4tet' taldearen kontzertua (10€) [Santa Ana antzokian](#)

ABENDUAK 29 / 20:00

PETITE MESSE SOLENNELLE

Ganbara Abesbatzak G. Rossiniren 'Meza Solemne Txikia' abestuko du (8€) [Mikel Goiaingeruaren parrokian](#)

oñabike.com

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

'BERTOKO ETA URRUTIKO IPUINAK'

ABENDUAK 15, HAUR
LIBURUTEGIAN, 18:00



6 urtetik gorako haurrei zuzendutako saioa, Grama Kolektiboaren eskutik.

Maitasuna, konfiantza eta biziraupena bezalako gai unibertsaletan arituko dira kultura ezberdinen begiradapean; Sioux indiarak, tuneztarrak eta euskal herritarak gehiago ezagutuz. Gonbidapenak abenduaren 1etik aurrera liburutegian.



Hileko gomendioa

90eko hamarkadaren hasieran, Joe Sacco izeneko komikigile gazte batek Palestinara bidaiatu zuen, eta han bizitakoak komikiaren forma artistikopean dokumentatzea erabaki zuen. Nobela grafiko hau kazetaritza berriaren oinardeko zuzena da, eta komiki-kazetaritza deitutako korrontearen funtsezko pieza: dokumentu etnografiko aparta, garai hartako kronika garrantzua.

ZINEA



ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusia: Ostirala (22:00), larunbata (22:00), igandea (19:30 eta 22:00) eta astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Abenduak 1-3



ZINE KLUBA:

-
NAGUSIAK:
Napoleon
HAURRAK:
Allan txikia

Abenduak 8-10



ZINE KLUBA:

-
NAGUSIAK:
El maestro que prometió el mar
HAURRAK:
Wish: El poder de los deseos

Abenduak 14-17



ZINE KLUBA:

Bidasoa 2018-2023
NAGUSIAK:
8 Apellidos marroquí
HAURRAK:
La Navidad en su mano



'GO!AZEN 10.0' KONTZERTUA

ABENDUAK 28 /
17:00 eta 19:00

Sarrerak (8€) abenduaren 2tik aurrera salgai, www.onati.eus eta Txokolateixan Santa Ana antzokian



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16
ABENDUAK 4, 5, 13, 14, 22 eta 23.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
ABENDUAK 7, 8, 15, 16, 17, 25 eta 26.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
ABENDUAK 6, 9, 10, 18, 19, 27, 28 eta 31. URTARRILAK 1.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
AZAROAK 1, 3, 4, 5, 13, 14, 22 eta 23.
ABENDUAK 1, 2 eta 3.



MERKATU TXIKIA

GARAJEA ALOKAGA Otadui zuhaitzian. 16m², 40€/hilean. Deitu: 645 719 884.

ORTU SAILA SALGAI Jaumendi aspiko lursailetan kokatuta dagoen ortu saila (200 m²) salgai. Prezioa negoziatu daiteke. Deitu: 943780526 / 943782559.

MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72

ODOL ATERALDIA

ABENDUAK 1 / 16:30-20:30 MU-ko Enpresagintza fakultatean. Hitzordua hartzeko, deitu: **943007884**

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati



>> URRUSULAKO KONTUAK (III)

Haizpeeko lanak

Urrusulatarak haitz azpira faten ziran bedarretara. Urrusulagarai aldetik hasitta Aitzgaiñeko tubuaren pareraiaño etxe bakoitzak bere zelaixa eukan, suertia esaten xakona, eta Urrusulako etxe gehixenak ekuain beria. Zelai estuak eta oso malkartsuak ziran eta hango erripetan bedar-lanetan ortozik ibiltten ziran gehixenak, nahiz eta batzuk abarkakin be ibilli. Jaturabe aldeko tubuaren inguruko saillak, berriz, auzo-basuak ziran, geruago saldu ziranak.


Urrusulan leku hari **haizpeeia** esaten xako eta **haitzondua** be bai; eta Araotzen, berriz, **haiznardia**. "Haiznarda" Araozko leku-izen bat da, Aizkorbe auzunian daguea. Lekuari erreferentzia egiñaz, hala esaten daue araoztarrak: "fan nauk/n ixixa haiznarda behera bueltaka".

Terrenuok etxeak izaten ziran, eta, gaur egunian, danak abandonauta badagoz be, bere denporan inportantzia haundixa euki euen. Neurri desbardiñekuak ziran. Batzuen partia edo suertia estutxua zan; beste batzuena, oster, zabaltxuagua, baina luzieran danonak antzerakuak ziran. Izan be, haitza be ezta leku danetan iguala, hemen igual beheratxuago etorten da, harutzatxuago goratxuago egitten dau, eta Errotakuai tokau xaten gora egitten dauen lekuan sailla eukittia, tremendako sailla, eta garai batzuetan handik Errotako zuloraiño bederatzi biaje, danak be haundi samarrak, eruaten zittuain ganauakin.

Erripa hareittan bedarra ebatia etzan edozein modutako lana izaten; Errotako aittajuna, Bitoriano Madinabeitia, adibidez, ortozik ibiltten zan, eta haren illoba Jose Luis akordaitten da, mutikua zala, aittajunaren ondorian betik eta ..., "koño, neuk be kendu bihar ditxuat oiñetakuak". Kendu zittuan eta baebillen, eta halako baten, zuztar batek, hanka azpittik kriston ebagixa, azpittik, e, hanka azpittik. Hango odola! Eta han, e, hango goiko puntan, e! Oraintxe



Haizpeeko suertia



Urrusulako errotako Bitoriano Madinabeitia, aittajauna, eta, Jose Luis, illobia



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS





Bedar-karriuan kablez Malloetan (Naparroa)

egin xuagu, oraintxe egin xuagu ederra! Mutikua miñez kejaka, baiña hala ta be lotu trapu zahar batekin eta benga, atzera bedar ebaten edo eguena egittera! “Hori izatia hobia izango dok” entzun eta aurrera! Jose Luis mutikua ortozik hasi zan baiña, segiak ebagittako illarrak be egoten dira, eta segittuan kriston ebagixa hanka azpizan. Ha zan odola, ha! Oraintxe egin dogu ederra! Atzera jeitsi eta... zelabait!

Bedarra jeisteko kablia be betik existiu da. Baserri dan-danak be ez ekuain. Errotan, esate baterako, ez eguen kablerik; eurak betik ganauakin egin euen bedar-karriua, orainguak eta aurrekuak be bai. Baiña beste etxe batzuk, Barrenetxetan, adibidez, Haizpeetik kabliak ekuain. Orduan, han goixan sendorra egin eta kabletik behera botaten euen bedarra.

Aitzgaiñetik edo Haizpeetik Urrusulara bakoitzak bere kablia eukan. Barrenetxe Haundixak alde batetik, eta Barrenetxe Txikixak, bestetik, bixak ekuain bakoitzak bere kablia. Osiñagakuak be bai eta Erostarbekuak be bai. Eta gero bedar hori botaten zan kablian. Aittatutako azkenengo baserrikuak, hau da, Erostarbekuak traiektu motza ekuain, etxia hurrian ekuallako, eta horregatik hareik bedar-karriak samurtxuago egitten zittuain.

Kabliok bedar denporan ifiñi eta bedarrak akabaitten ziranian, lehentxuago gerotxuago, etxera batzen ziran, kamarara, sikutara. Horrek bere zera, tolduaren modukua, eukitten eben han kamaran, eta han batzen euen, eta hurrengo bedar-denporia etorrenian, atzera ifiñi, behetik gora tira egiñaz. Hori be lan galanta, portzierto!



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com



**Gabon hauetan
erosotasuna oparitu.**